

uk

217. zenbakia / 2012ko uztaillaren 3a



URTERO 20€


Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
 Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urtero argazki zahar eta barriak
 Urtero zure proiektuak lau haizetara
 Urtero 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk_ere_gura_dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagarmínaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, German Kortabarria K.Olate, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Bilbo Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura

Non zer

- PLAZA.
- IRUDIA. Bandera urdina.
- FACEGUK. Ikasturtea amaítuta, zure iritzi, nork gaudituko du?
- LEHEN ETA ORAIN. Berango.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Juan Uranga Motriko.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Sanjuanak Barrikan.
- ARGAZKIA. Paella Eguna Azkorin.
- BERBETAN. Txema Montoya.
- FOTOGRAFIA. Ane Basagoiti eta Hodei Torres.
- SAKONEAN. Plentziako Historia Jardunaldiak.

KULTURA ETA AISIA


- ZINEMA. Sua filmaren estreinaldia.
- MUSIKA. Amintzako Txapel Reggae jaialdia.
- LIBURUAK. Edo! argitaletxea.
- KIROLAK. Arraun Liga.
- ELKARRIZKETA. Toscana Viar.

AMAITZEKO

- PINTXOTAN. Hanburgesa tipia.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Paella Txapelketa Aixerrotan, 1972.
- AITORMENAK. Nagore Aranburu.

Azala: Ane Basagoiti


www.ukaldizkaria.biz



30 Txema Montoya

Berbetan

El Conquistador del Fin del Mundo-ko zuzendari erandioztarragaz programaren barruak arakutzen ibili gara.



11 Juan Uranga Motriko



54 Nagore Aranburu



Dacia Lodgy berria

Monobolumen handi bat

9.900€-tik aurrera¹

Aukeran 5 edo 7 plazakoa
 GPS nabigatzailea inorporatuta
 Maletategiaren edukiera: 2.600 dm³

1 URTE² ASEGURUA DOAN | **3 URTEKO³ BERMEA EDO 100.000 km**

www.dacia.es / 902 245 200 | **Descúbrelo en tu Concesión Renault-Dacia.**

Dacia recomienda 

BILBO BERRI Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Eskukoa.....

Urtean 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Ulmeko jostuna

Ulm 1592 poematxoan hegaz egin nahi zuen jostunaren, eta apezpikuaren alegia kontatzen digu Bertolt Brechtek: Ulm hiriko jostun batek hegan egiteko ametsa iltzatua zuen gogoan; ametsa betetzeko, hegal itxurako gailu pare bat taxutu eta Ulmeko katedralera jo zuen, dorre gorenetik hegaldatuz hiri osoari asmakizunaren arrakasta erakustea erabakita; apezpikua ere gonbidatu zuen ikuskizunera, baina hark uko egin zion gonbitari: *“gizakia ez denez hegazti, ez du hegaz egingo inoiz”*, ebatzi zuen; hala ere, ez zen guztiz lasaitu elizgizona, harik eta jostuna, hegal eta guzti, katedral aurreko lauzen kontra lehertu zela abisatu zioten arte; orduan, euforiaz gainezka, kanpaiak jotzeko agindu zuen, hegaz, hegaztiak baino ezin zutela egin axiomak bere horretan jarraitzen zuela ospatzeko; jostun gaixoak ez zuen hil-kanpairik izan.

Brechten parabolak aurkezten dizkigun muturreko arketipoen artean, bistan da egileak –geuk bezala– begikoago duela katedral aurrean gorpu zetzan herritar xehea, bere arrazoien garaipena proklamatzeko kanpaiak astinarazi zituen elizgizon harroa baino: artisaun xumearen alde jartzen gaitu haren gogo askatasunak, debekuaren marra zeharkatzeko ausardiak, ametsa betetzeko tema xaloak; gorrotagarri gertatzen zaigu, aldiz, aurreiritziak dogma izendatu eta jardunen eta joranean nondik norakoa, eta norainokoa, mugarrizten dituen agintari bihozgabea.

Hala ere, gure jostunaren atarramentu txarrari ez lerioket galtzaileen xarma baizik, ez bagenek azkenean historiak berari aitortu diola arrazoa, ez apezpikuari; gauzak alda daitezkeenaren uste horrek baikortzen du bestela etsigarria litzatekeen istorioa; iraultzailearen baikortasun historikoa, beraz, Brechten beste idazti askotan bezala: *“Irmo dirudiena ez dago irmo; gauzek ez dute berdin jarraituko; gaurko garaituak bihar garaile izango dira”*, diosku *“Dialektikaren gorespenean”*.

Ez da, noski, jostunaren parabolak duen



irakurketa bakarra –ez zion alferrik *“Ulmeko jostuna”* izena jarri Lucio Magri komunista italiarrak alderdiaren ibilbide gorabeheratsuaz idatzi zuen gogoetari–; baina baikortasun historiko txute bat ez da kalterako bizi ditugun garaiotan.

Azken aipamen bat. 1944an –Bertolt Brechtek jostunaren eta apezpikuaren alegia idatzi zuenetik hamar urtera– inoiz jostunaren porrota ez kilen errepikaz ospatu omen zuen hirian, ulu egin zuten sirenek gizon hegalarien etorreraz ohartarazteko: RAFeko bonbaketariek hiriaren gehiena suntsitu zu-

ten eta katedralean ere kalteak eragin zituzten; ez du ematen bonbek apezpikurik harrrapatu zutenik. Justizia poetikoa ez da beti hain justua ere izaten. ○

¹Ulmeko jostun asmatzailearen historia ez zen justu Brechtek kontatu zigun moduan gertatu: *just in time* kultura bernizez hornitzen gaituen Wikipediak dioskunez, Ulmen izan, izan zen jostun asmatzaile bat, Albert Ludwing Berblinger izenekoa; Brechtena baino bi mende geroago bizi izan zen, eta haren saiakerak ere huts egin zuen arren –Danubio ibaian bukatu zuten jostun eta tramankuluk–, behintzat onik atera zen, nahiz eta, lotsaren lotsaz, hiritik betiko lekutzea erabaki zuen. Gaur Ulmeko udaletxean dago erakusgai Berblingerren hegalean erreplika.

gu geu

Barriak eta okerrak

Oporrak hartu baino azken-aurreko UK duzu hau, irakurle! Eta oraindik ere, geure buruei kea darien arren, zer barri badaukagu: Plaza atalean, hilean behin, jardungo duen kolaboratzaile barria auzetuz gura dizugu, lehenengo-lehenengo. German Kortabarria lgartuak inoiz erabili izan duen heteronimoa da K.Olate. Horrela sinatuko ditu Kortabarriak, hain zuzen ere, aurrerantzean atal honetarako idatziko dituen artikulua. Bestalde, 215. UK-ko erdiko Argazkia atalean idatzitakoa ez ei dela zuzena esan digu "Pakiko"-k; argazkian agertzen dena ez ei da Egia Hotela, "Circulo Algorteano" baino. Hala, lehenengoari ongietorria emon gura diogu, eta bata zein besteari, euren ekarpenagatik gure esker ona... Gainontzean, irakurle, datorren UK-ra arte!

UK-ko lan-taldea



GETXO, 2012KO EKAINA

Urdina zerua, itsasoa eta bandera.../ Uda iritsi da eta uribekostarrak irrikan gaude hondartzara joateko. Gainera, zorioneko gaude; izan ere, Bandera Urdina luzituko dute Getxoko hondartza gehienek: Azkorri-Gorrondatxek, Arrigunagak eta Eregak; azken horri dagokio irudi hau. Ingurugiroko Hezkuntzaren eta Kontsumitzaileen Elkarteak emoten du bandera eta aurretik ezarritako estandar batzuk bete izana egiaztatzen du: bainatzeko uraren kalitate ona, garbitasuna, informazioa, ingurugiroko hezkuntza, segurtasuna, zerbitzuak eta instalazioak. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Ikasturtea amaitu da: zure iritziz, nork gainditu behar du?



Lamiako

Beatriz Indias

> langabetua

Aurten Athletic-eko jokalariek gaintu behar dute ikasturtea. Izan ere, denboraldi oso ona egin dute oraingoa eta ondo merezita daukate gaintzea. Gainera, poz handia emon digute. Horregatik gaintutako nituzke.



Leioa

Gonzalo Oiarzabal

> langabetua

Langabezian dauden guztiak gaintutako ditut, batez ere euskaltegian daudenak. Oso zaila da langabeziari aurre egitea, baita euskara ikastea ere. Nik egunero bost orduko ikastaroa daukat eta klasekideak eta ni lan handia egiten ari gara ikasteko.



Romo

Iñaki Aretxaga

> langabetua

Langabetu guztiak gaintutako nituzke. Egoera oso txarra bizi dute eta lanpostua topatzea opa diet, ni barne. Egoera oso zaila da, ea datorren ikasturterako gauzak hobetzen diren eta lana daukagun.



Leioa

Arantza Casado

> langabetua

Ikasleak gaintutako nituzke. Nire ustez, oso gogorra da ikastea, lan eta ahalegin handia eskatzen du. Merezi dute gaintzea lan gogorraren ostean, ikasten ordu mordoa emoten dute-eta.



Algorta

Begoña Peña

> langabetua

Besteen alde lan egiten dutenek, GKE-kaz dabilzanek, beren denbora besteen onurarako eskaintzen dute-eta. Jendartea oso indibidualista da, eta horregatik gertatzen dira politikarazkoak eta bestelakoak. Jende esku-zabalak gaintu behar du.



Berango

Aitor Peciña

> langabetua

Ez dakit. Agian, kirolari batzuk gaintutako nituzke, aurten ederto ibili da-eta bat baino gehiago. Adibidez, Bilbao Basket taldekoak eta Athletic futbol taldekoak. Denboraldi oso ona egin dute biek eta, azken partida irabazi edo ez, merezi dute.



Iraganez doa denbora* beti / BERANGO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Curiosity killed the cat?



Lamiako, 2011

Testua: **Galder Bilbao** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Hementxe gaude, hementxe gaude

A zer nolako koadroa dugun margoztutakoa hemen; pasadizo bat eta bi horma nahiz (e)ta diruditen erren, zuzendutako bide zidorra puntu batean da eten, bi lagun daude tente parata eta begirada garden; guk baita ere jakin nahi dugu atzean zer ote dagoen.

Astiro hurbildu egiten gara katuen mundura, aizu! Gu kalekume baldin bagara beraiek baita ere maisu; adi ditugu babesle gisa mitxinek ez dute izu, hor gelditzeko baimena itxoiten miauka esan dizu; gehiegi hurbildu eta begiak atera egingo dizkizu.

Zerbait gordeta dadukatela etzazue izan dudarik, txoritxoren bat edo sagua bahituta izango dute hortik. Gehiegi jakin nahi zuen katua suertatu egin zen hilik, rolak aldatu dira oraingoan esaera zaharra zintzilik, eta etxera bueltako gara ezertxo ere jakin barik.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

INPRIMATEGIA GARA!
1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel
229€
Eskaintza berria
5 BLOK
Debalde
Eskaintza uztailaren 15ean bukatuko da
cianoplan
GLOBAL PRINTERS
www.cianoplan.es

akorduan eta omenez > Carmen Pradera Jauregi

“**Kaixo pitxin**, ze moduz?” Hitz horiekin hasten zituen bere elkarrizketarik gehienak.

Bere irriaz gela bat argi zezakeen. Horrelako pertsonak ez dira askotan aurkitzen eta halako emakume bat gure bizitzan agertzen denean, eskertzerik besterik ez daukagu. Hori horrela dela zin dagizuet.

Idazkari izatearen ogibidea gustoko zuen eta pasio osoz betetzen zuen. Goizero-goizero udaletxera sartzean mahairik-mahai joaten zen bertakoak ondo geunden galdezka. Udal batek eskatzen duen konplexutasuna ulertzeko gaitasuna norbaitek balu, berak zeukan.

Sopelako udalean hainbat urtetan egon da, egoerarik latzengatan ere, mailarik gorenenean tinko.

Arazoak erronkatzat hartzen zituen pertsonetarikoa zen, eta honek egoerarik indartsuenean jartzen zuen bere burua, edozein gauzari aurre egiteko beti prest, kementsua benetan!

Ez, ez luke sekula bere lana erdizka utziko, Carmenen profe-

sionaltasuna eta lanarekiko konpromisoa benetakoa zen. Hala erakutsi zuen udalerako egin zituen azkenengo lanetan ere. Hala ere, hitz hauek ezin izango dute zuk utzitako abagunea bete, ezin zure idazkaritzako mahai horretan dagoen hutsunea bete.

Eta orain zuk horrenbeste urtez zuzendutako udalbatza hontatik, ez dugu zu agurtzeko mailara dauden hitzik aurkituko, aspaldiko olerkiak dioen bezala:

“Zeruan ez da gizonen fama eskatzen dauan izarrik; argitasuna daukanak ez baitu alabantzaren beharrik.”
Agur eta ohore Carmen

Saioa Villanueva Zarandona
(Sopelako alkatea, Sopelako Udalaren izenean)

akorduan eta gorazarre > Gotzon Elortza burkideari agur!

Gure artetik alde egin duzula eta, kultura arloan egindako zure beharra dabil barri. Geuretako batzuk jakin izan dugu bai, txoriak, euskara, ingurunea, pintura historia... euskal kulturaren usain zuen edozer zein gogoz arnasten zenuen.

Arnastu, hausnartu, bueltak eman, atzekoz aurrera jarri, zeure egin, zabaldu. Kultura izan dala zure borroketako bat dudarik ez. Batean edo bestean, entzun izan ahal dizugu esaten zenbaterainoko desengainua hartu zenuen frankismoren osteko instituzioen kultur norabideaz.

Baina ez zaitugu gehienok ezagutu izan kultura borrokan, batez bere. Algortako lehenengo amnistiaren aldeko Gestoran, presoen kolektiboaren aldeko lanean, Bisi Unanue emaztea eta Aitor semearen ondoan errefuxialdi luzean zehar, atea beti zabalik. Espainiar poliziek komisaldegian emandako jipoiaren

osteko begi-ubelduretan ezagutu zaitugu, torturaturik.

Gure herriaren norabideaz beti kezkatu eta pentsalari. Behar izan zaitugunean kide.

Hor izan zaitugu ezagun guk, Gotzon. Burkide moduan.

Ondino bere, joanda zagozela, inon gordeta itxi dizkiguzun zure apunte koaderno metak baten batek aztertzean, ziur ezuste polit bat edo beste emango diguzula: hamengo berba hori dala, hango txori haren izenaz, geure historia pasarte horren garrantziari buruz... Ziur eta zuhur.

Atsedean hartzeko ordua heldu zaizu. Merezia duzu. Aupada handi bat zuretzat eta familiarentzat.

Herria, hizkuntza eta askatasuna. Aupa Gotzon!!! ○

Getxoko Ezker Abertzalea

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



Hurrengo irabazlea: zeu!

Gidabaimena euskaraz

“Gidabaimena euskaraz” kanpaina, Getxoko, Erandioko eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herriotako autoeskolen laguntzaz. 2011n, 48 ikaslek egin zuten azterketa euskaraz kanpaina zabaldu den herrietan. Getxon, Erandion eta Uribe Kostan 28 gaztek gainditu zuten euskarazko proba.

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenek Europan zehar trenez bidaiatzeko zozketa batean parte hartzen dute. **2011koa ere getxoetar bati egokitu zaio saria, Gorka Saitua La Torre gazteari. Zorionak!**



“Getxon paella lehiaketa antolatu zuten lehenengoz, eta Berangon zer edo zer egin behar genuela pentsatu genuen”

Juan Uranga Motriko > Berangoko herrigintzan jo eta ke!

Intxaurraga Goikoan bizi da Juan Uranga, Berangoko metro geltoki goiko aldean, etxebizitza blokeen artean zokoratua lotu den baserri ederrean: “Ni ez naiz Berangokoa, barreren goiko aldekoa baizik!” dio txantxetan. Uranga Intxaurraga Bekoan, parean zegoen baserrian, bizi izan da urte luzez. Baina Goikoan, auzokide atsegina ezagutu zuen: “Emaztea hiru metrotara topatu nuen”. Metro barreretatik behera, ostera, herrigintza topatu du Urangak; azken hamarkadetan berangoztarra inurri-lanean ibili da herrian. Berbarako, Gure Txoko elkartearen sortzen lagundu zuen, orain 55 urte baino gehiago: “Getxon paella lehiaketa antolatu zuten lehenengoz, eta Berangon zer edo zer egin behar genuela pentsatu genuen”. Hor dago Berangon oso errotua dagoen bakailao-txapelketaren sorrera: “Horregatik dira paellak bakailaoa baino urtebete zaharragoak!”. Sasoi horretan lehia bizia zegoen herriko hiru auzoren artean: “Berango, Baserri (Eguzkitza ingurua) eta Santa Anaren artean; batez ere lehenengo biak Santa Anagaz...”. Gorosti, Ariku, Txakolin Eguna, Jai Batzordea... bere laguntza beharrezkoa izan denean, Uranga prest agertu da beti: “Berangoko lehenengo ikastola sortzen laguntzea izan zen gogorrena”. Gaztetan Brutis deitzen zioten arren, izaera lasaia du Urangak; gazte zein helduakaz ederto konpontzen da, helburu bakarra duelako: “Berangon giroa sortzen saiatu naiz”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Kulturak integratzen ikasiz

Kultur arteko bizikidetza sentsibilizazio programa garatu dute Udaleko **Gizarte Zerbitzuek** herriko zazpi eskolatan; Lehen Hezkuntzako eta DBHko **472 ikaslek parte hartu du**

Asko aldatu da gure jendartea azken hamarkadetan, ideia hori entzuten ohituta gaude: batetik, bizilagun barriak iritsi dira atzerritik, eta bestetik, familia eredu barriak sortu dira; baina integrazioa beti ez da erraza. Horregatik, Gizarte Zerbitzuak eskolatik hasi dira gaia lantzen **Kultur arteko bizikidetza** programaren bitartez. Getxoko zazpi eskolatako 472 ikaslek parte hartu du Biltzen zerbitzuaren egitasmoan.



Fadura institutuak ere parte hartu du programan

Romo, Zabala, San Ignacio, Madre del Divino Pastor eta Andra Mari ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa, eta Aixerrota eta Fadura institutuak DBHko ikasleek parte hartu dute aurten **Kultur arteko bizikidetza** programan, Udaleko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi dutenez: beren-beregi, 472 ikaslek parte hartu du, 23 lan-taldetan banatuta.

Sentsibilizazio programa da hori eta Getxoko Udalak abiatu du, Biltzen integrazio eta bizikidetza zerbitzuaren laguntzagaz, eta ondoko helburuak dauzka: edozein giza-talderi dagokion aniztasuna ulertzea eta modu positiboan baloratzea; gure eta beste jendarteetan izaten diren desberdintasun sozialak eta hierarkiak aztertzea, eta gizartearen irudipenetik, hedabideetatik eta abarretik datozen aurreiritziak zein estereotipoak lantzea gure pertzepzioetan eta harremanetan.

Hori gutzia lantzeko hausnarketa bul-

tzatu dute ikasle bakoitzarengan: hau da, hausnarketa pertsonala, “berdinen arteko kontraste-estrategia bultzatuz”.

Badirudi harrera ona izan duela programa ikasleen artean. Izan ere, Elena Coria Getxoko Gizarte Zerbitzuetako

“Helburu bat izan da edozein giza-talderi dagokion aniztasuna ulertu eta positiboki baloratzea”

zinegotziaren arabera, “gazteen artean denboran zehar sentsibilizazio programa mantentzea garrantzitsua da, zertarako eta jendarte tolerantia, plurala eta irekia gartzeko”. Haren iritziak, horrelako jarduerak burutzen segitu behar da, “jarrera bateratzailea sortzeko”.

Ildo berean eta Udaletik jakinarazi

dituzte, ikastetxeek ere positibotzat jo dute egitasmoa, zergatik eta “*edukiaz gain, helburuek, metodologiak eta irakasleek kultur artekotasunaren ikuspegi errealistak erakitzen lagundu dutelako*”. Guztira sei orduko saioak gauzatu dituzte, eta dinamizatzaile-taldea, denak hezitzaileak, jatorri eta heziketa-eredu desberdinetakoa izan dira, eta “*lan-taldeetan lan egiteko eskarmentu handikoak*”.

Arrakasta ikusita, datorren ikasturtean ere garatuko dute programa. Horretarako, parte hartu gura duten ikastetxeak harremanetan ipiniko da Udala irailan, talde bakoitzaren ordutegiak zehazteko. Halere, informazio gehiago behar izanez gero, Immigrazio eta Kultur artekotasun Unitatera jotzea dago. ○

Info+: 94 466 01 51 / inmigracion@getxo.net

Gaurik laburren

Film labur emanaldiak uztailaren 9 eta 10ean



Algortako Biotz Alai plazan izango dira emanaldiak

Udako gaueko epela baliatuko dute, beste behin ere, Algortan zinema kalean eskaintzeko. Baina ekimen hau ez da beste modukoa: Gaurik Laburren film labur emanaldia da eta zinemaren magiaz bustiko du Biotz Alai plaza uztailaren 9an eta 10ean, gaueko 21:00etatik aurrera eta doan.

Gaztelarazko filmak astelehena 9an ikusi ahalko dira, ondoko 13 hauek: *Entre interiores* (Urtzi Perez romotarra), 85.12.30 (Manuel Bartual), *Bajo la cama* (David Zabala eta Paul Urkijo), *Amazing mask* (Dani Moreno eta Chaparra Entertainment), *Super recortes* (Gonzalo Visedo), *Basauri vice* (Ruben Ontiveros), *Descafeinado infernal* (J.O. Romero), *Tengo que matar a Maria* (Manuel Bartual), *Espejo* (Ozzypiuntur Prod.),

Ketchup (Dani Moreno eta J.O. Romero), *Le llamaremos Bobby* (Paco Cavero), *Bariku light* (Asier Abio) eta *Cuchillo, McGregor y el vasco* (David Zabala eta Paul Urkijo).

Euskarazkoak martitzenean emongo dituzte, ondoko 14ak: *Lagun mina* (Jose Mari Goenaga), *Ohe aspiko zera* (David Zabala y Paul Urkijo), *Biak bat* (Zapatilla films), *Barkatu* (Nikolas Ocio), *Bazekiten* (Juan Bidegain), *Berriro igo nauzu* (Carlos Rodriguez), *Eta amama?* (Itziar Iriar), *Katebegitik* (Iban del Campo), *Lanbroa* (Mikel Zatarain), *Leon apaizaren eskarmentua* (Pello Varela), *Malkoa* (Jorge Gil Munarriz), *Moldatu* (Axier Urbieto), *Trikuaren hiztegia* (Koldo Almandoz) eta *Urrezko eraztuna* (Jon Garaño). Argiak, kamera, ekin! ○

2012-13 IKASTURTERAKO KIROL-ESKAITZA

Datorren ikasturterako ikastaro-eskaintza kaleratu du Getxo Kirolak taldeak. Guztira, 5.300 plaza egongo da, 20 bat modalitatetan. Ikastaro-mota bi izango dira: ikaskuntza-zikloak eta denboraldikoak. Lehenengoetan izen-ematea itxita dago, baina denboraldiko ikastaroetan irailaren 7ra arte egin daiteke matrikula. Ikastaroei eta ordutegiei buruzko informazio zehatzagoa topatuko duzu ondoko helbidean: getxokirolak.getxo.net.

UDAKO ORDUTEGIA FADURA KIROLDEGIAN

Irailaren 16ra arte udako ordutegia izango da Fadurako kanpoko igerilekuetan. Hala, igerileku olinpikoa asteko egun guztietan erabili ahalko da 08:00etatik 21:30era, eta kanpoko gainerako guztiak berdeguneak, zabuak eta umeen igerilekuak 10:00etatik 21:30 arte. Era berean, igerilekuetako kafetegia zabalik egongo da 10:30etik 20:30era. Kontuz, ito barik gero!

GETXO BERPIZTU!, AZKEN FASEA UZTAILEAN

Getxo Berpiztu! egitasmoa hirugarren eta azken fasea garatuko dute uztailean zehar. Jakingo duzunez, Algortako Aretxondo kaleko ordubea eraldatuko dute proiektu horregaz. Horretarako, eraldatze tailerrak gauzatuko dituzte uztailaren 7, 8, 14, 15, 21, 22 eta 28an. Laguntzeko, bertaratu besterik ez daukazu.

MAIA EGUTEGIAREN BIGARREN FASEA

Euskal kulturaren elementuen inguruan, bertokoak eta atzerritarrek elkartzeko helburua dauka Maia Egutegia lehiaketak eta, daborduko, bigarren faseari ekin dio. Herritarren proiektuak laguntzen ditu eta zure proposamena helaraz dezakezu. Hori prestatu ahal izateko, informazio gehiago topatuko duzu ondoko helbideetan: [facebook.com/maiaegutegia](https://www.facebook.com/maiaegutegia) eta www.maiaegutegia.wordpress.com.

 **naturlan**

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algortanos
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA

Olalla Elorriaga Lopez > sumillerra eta *La Nariz de Oro* sariketan bigarrena

“Garrantzitsuena da bezeroei erraz hitz egitea ardoaz, esperientzia alkarregaz gozatzeko”



Lehenengoz parte hartu du lehiaketan Elorriagak

Areetako *La Granja Selección* dendakoa da Olalla Elorriaga Lopez. Bertan lan egiten du aspaldi, gurasoen denda da-eta. Lehen mailako produktuak saltzen piztu zitzaion irrika ardo eta likoreen mundua sakonago ezagutzeko, eta sumiller izateko ikasi zuen orain sei urte. Lehenengoz parte hartu du *La Nariz de Oro* lehiaketan, eta arrakasta lortu du: bigarren lotu da 65 sumilleren artean. Gainera, dastatzaile ere badabil hainbat sariketatan, besteak beste, Idiazabal gaztak epaitzen. Ardo munduan murgildu gara getxoztarragaz.

—Sumiller askoren artean lotu zara bigarren, zelakoa da *La Nariz de Oro*?

—*Vino+Gastronomía* aldizkaria duela 20 urte hasi zen antolatzen. Espainiako jate-txeetako sumillerek parte har dezakete, eta aurten lehenengoz, dendetakook ere bai. Beraz, ni lehenengoz lehiatu naiz. Madrilgo finalera joan ginen 63 sumiller, baina orotara 400ek parte hartu dugu lehiaketan. Nik Bilbon egin nuen lehen proba eta inguruko jende asko hurbildu zen parte hartzera. Munduko edozein alkoholodun edari izan daiteke dastatu

beharrekoa. Ideia da ardoaren munduaren profesionaltasuna erakustea, ostalaritzan zerbitzuaren kalitatea bilatzea eta erakustea jendea prestatuta dagoela.

—Zein da lehiaketaren dinamika?
—Madrilen lehiatu ginen artean sei sumiller sailkatu ginen finalerako eta proba berezia egin genuen: bost minututan bost edari usaindu behar genuen eta euren buruz ahalik eta datu zehatzenak emon. Kontua ez da marka bat esatea, hori oso-oso zaila da-eta. Gerta liteke ezagutzea noizbait probatu dugulako, baina

zehaztasun hori lortzea bost minututan gehiegi litzateke. Kontuan izan behar da, esan bezala, munduko edozein edari izan daitekeela eta kopak beltzak direla; beraz, ez da bereizten kolorea. Usaimenagaz besterik ez da jokatzeko, ez da dastaketa.

«Lehiaketan munduko edozein alkoholodun edari ipin dezakete usaintzeko»

—Sumiller ikasi duzu, zelatan?

—Gurasoen denda lanean hasi nintzen 20 urteagaz, eta botila askogaz egunero gora eta behera nengibilen. Irrika piztu zitzaidan, oso polita eta interesgarria iruditzen zitzaidalako gaia. Ana Martin enologo gure bezero zen eta astebeteko ikastaroa egitea gomendatu zidan. Orduan jabetu nintzen benetan gustuko nuela mundu hori. Handik pare bat urtera egin nuen Artxandan Sumiller Aditu ikastaroa. Ikasturte bi izan ziren: lehenengoan Espainiako ardo eta likoreei buruz aritu ginen eta bigarrenean mundukoei buruz, baina baita kalitate oso handiko bestelako jakieei buruz ere: gazta, foie-grasa, ostrak, e.a. Lehen mailako produktuak denak.

—Ez dituzu ardoak bakarrik dastatzen?

—Ez, beste jaki batzuk ere dastatzen ditut. Azken asteburuan Idiazabalen egon naiz epaile gazta-lehiaketa batean. Baina, egia esan, gure denda produktu asko daukagu, ez bakarrik ardoa, eta denetarik dastatu behar dugu erosi baino lehen. Dastatzaile bihurtzen gara, baina ez daki-gu noiz hasi garen, betidanik egon baitzara produktu horiekaz harremanetan. Gauzarik garrantzitsuena beti izan da bezeroei era errazean hitz egitea ardoari buruz, gertutasuna bilatzea, distantziak murriztu eta esperientzia hori elkarregaz gozatzeko. Bestela ez dago magiarik. ○

Paellak, aurten 22an

Itxas-Argia elkartearen 57. Paella lehiaketa izango da **Aixerrotako landan**



Eguzki-oihal (toldo) zozketa uztailaren 12an egingo dute

Paella-lehiaketa ospetsua uztailaren 22an izango da, domekan, ohi legez Aixerrotako landan, Getxon. Itxas-Argia elkarteak antolatzen du urtero, eta aurten, 57. edizioa ospatuko dute.

Parte-hartzaileentzako lekuak hilaren hasieran esleituko dituzte elkartearen egoitzan (Iturribide, 24): iaz eguzki-oihala eduki zutenek uztailaren 9an eta 10ean jaso behar dute, 19:00etatik 21:00etara. Soberan dauden oihalak uztailaren 12an zozketatuko dituzte. Beraz, horietako bat eskuratzeko, izena emon beharko da egun horretan bertan, 19:00 eta 21:00 artean; jarraian egingo dute zozketa. Muntaketa

Paellen aurreko asteburu bietan egingo dute eta laguntza eskertuko dute.

Paella egunari dagokionez, goizeko 09:00ak arte bakarrik sartu ahalko dira autoak eta lehiaketarako izen-emotea 10:00 eta 12:00 artean egin beharko da. Izan ere, orduan emongo diote hasiera egunari, aurrekuagaz eta umeen dantza erakustaldiagaz.

Paellak, barriz, 13:00 eta 15:00 bitartean aurkeztu beharko dira. Sariak, ostera, 17:00etan banatuko dituzte, erromeria hasi aurretik: aurten Haitzama taldeak girotuko du plaza. ○

Info+: www.itxas-argia.com

JAZZALDIA UZTAILAREN 4TIK 8RA ALGORTAN

Jakingo duzunez Getxoko Nazioarteko Jazzaldia izango da uztailaren 4tik 8ra Algortako Biotz Alai eta Geltokia plazetan. Sarrerak eskura daitezke BBK-ren orotarako kutxazainetan, www.bbk.es webgunean, 944 310 310 telefono zenbakiaren bitartez eta Algortako Kultur Etxean. Kontzertu nagusiez gainera, The Piper's Irish Pub tabernan doako kontzertuak eskainiko dituzte uztailaren 4tik 7ra.

Info+: www.getxo.net

FOLKLORE JAIALDIA UZTAILAREN 19TIK 21ERA

Beste behin ere Nazioarteko Folklore Jaialdia hartuko du Algortako Biotz Alai plazak uztailaren 19tik 21era, aurten 28. edizioa. Hilaren 19an dantzatuko du Algortako Itxartu taldeak. Biharamunean, 20an, Venezuelako Guanaguanare dantza taldea igoko da taula gainera eta, 21ean, Gran Ballet Argentino taldea. Dantzaldi denak hasiko dira 21:00etan, eta ohi legez, sarrera doakoa izango da.

LETREN TERRAZAK UZTAIL ETA ABUZTUAN

Uda sasoiaren irakurmena kaleratzeko aukera baliatzen du Kultur Etxeak, horregatik antolatzen du Letren Terrazak ekimena. Areetako Geltokia, Iturgitxi eta Sarri plazetan ipiniko dituzte kale-liburutegiak uztailaren 30era arte; eta Gernika, Algortako Geltokia eta Aldapa plazetan abuztuaren 2tik 31ra. Asteleheneetik barikura zabalduko dituzte, goizez 11:30etik 13:30era eta arratzez 17:30etik 20:30era. Horrez gainera, tradizio-jolasak, antzerkiak, eskulan-tailerrak eta jokoak antolatu dituzte, mahai-jokoak, bai elkarri laguntzekoak. Berbarako, hilaren 2an, *Ali Baba y los 40 ladrones* antzeztuko du Quiero Teatro taldeak Areetako Geltokia plazan; eta ipuin-kontaktak ere izango dira, 11n Iturgitxi plazan, 18an Sarri plazan eta 25ean Areetako Geltokia plazan. Azken horiek denak 19:00etan hasiko dira.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Asier Izquierdo > Umore Azokako argazkirik onenari saria

“Pozik nago nire burua probatu dudalako eta jendeak gustuko izan duelako emaitza”

Argazki Rallya antolatzen dute urtero Umore Azokaren baitan eta sari bi emoten dute: argazki-bilduma onenari bata, argazki onenari bestea; azken hori irabazi du Asier Izquierdo leioaztarak. Orain urte bi zaletu zen argazkigintzagaz eta lehenengoz aurkeztu da lehiaketa batean.

—Azokaren baitan egiten da lehiaketa?
—Bai, Umore Azokako zapatuan egiten da rallya, egun osoan zehar, eta gaueko 23:00ak baino lehen aurkeztu behar ditu partaide bakoitzak 25 argazki. Leioako Argazki Taldeak antolatzen du, Kultur Etxeagaz eta Umore Azokagaz elkarlanean. Taldea sortu zuten herrian argazkigintza bultzatzeko.

—Zelako argazkia da irabazlea?

—Gabaz egin zuten ikuskizun batekoa da. Kultur Leioako paretaren gainean egin zuen dantza bertikala bikote batek, sokatik esekita. Irudian ageri dira bata besteari zuzenean begira, airean dantzan, hegan bezala.

—Zergatik aukeratu dute irudi hori?

—Ez didate esan, baina irudiaren berezitasuna da kameraz kanpoko flash batezagaz eginda dagoela: flash-ak zeharka emon zuen argia, 60 graduko angelutik. Horre-



Txorierri auzokoa da Asier Izquierdo

gatik, silueta agertzen da, baina ez da guztiz ikusten. Beraz, efektu arraroa lortu nuen.

—Zergatik animatu zara parte hartzera?

—Argazkiak egiteko zaletasuna piztu zitzaidan orain pare bat urte eta, apurka-apurka, teknika hobetzen hasi nintzen, kamera zein argazkigintzaren parametro gehiago kontrolatuz. Nire burua frogatu gura nuen, eta ikuskizun horiek politik eta aproposak dira argazkiak egiteko.

—Positiboak dira horrelako ekimenak?

—Bai, batez ere zaletuentzat; ez dut uste profesionalak animatzen direnik horrelakoetan parte hartzera. Bestalde, rally honetan ia ez dago denborarik ediziorako: egunean aurkeztu behar dira irudiak eta, beraz, egin ostean ez daude ia trataturik. Lehia osasuntsua da eta trebatzeko aukera eskaintzen du. Ni nahiko pozik atera naiz nire burua probatu dudalako eta jendeak gustuko izan duelako emaitza. ○

Gure toponimia ezagutuz

Leioako toponimia bildu dute **liburu** batean, **Euskaltzaindiaren bilduma** baten barruan



Batez ere baserri-izenak ageri dira liburuan

Herriko toponimia ikertzeko lana abiatu zuen Udalak 2006an herriko mapa egin guran. Baina lan hori dena jendarteratzeko liburu bat egitea erabaki zuen. Euskaltzaindiaren *Izenak* bildumaren barruan argitaratu dute (kolekzioko bigarren liburua da) eta egunotan aurkeztu barri dute.

Beka batezagaz hasi zuen ikerketa Iratxe Lasak. Orain urte bi argitaratu zuten herriko mapa, baina ondorengo lan bolumentea ikusita, ordea, Goizalde Ugarteren laguntza eduki dute proiektuaren gidariek. Argazkiak eta informazio osagarria, barriz, Udalak emon zuen.

Batez ere baserri-izenak biltzen dituzte lanak, baina horietako gehienak desagertu

tuta daude gaur. Ildo horretan, Euskaltzaindiko Mikel Gorrotzategik dioenez, ez da lan erraza izan: “*toponimia hankaz gora dago Leioan, herria eta urbanizazioa asko aldatu dira-eta*”. Baina, gehienak baserriak badira ere, atal bat eskaini diote kale-izendegiari, hura ere, “*historian zehar asko aldatu da-eta*”.

Lanak 244 orrialde dauzka eta elebiduna da: euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago. Eta, esan bezala, *Izenak* bildumaren bigarren liburua da. Euskaltzaindiak iaz kaleratu zuen kolekzioko lehen: *Euskal Herriko Udalen izendegia* liburua.

Euskara Zerbitzutik jakinarazi duteenez, herriko izenak normalizatu eta ezagutzera emon gura dituzte. ○

PINTXORIK ONENA, POLITXEKOA

Jai Batzordeak ekainean antolatutako pintxo-lehiaketak badauka irabazlea: Politxe taberna. Bigarren egin zuten ekimena, San Juan jaien aurreko asteburuan, herria bizibarritu eta herri-ekimenak sustatu guran.

ANTZOKIEN ZUBI PROIEKTUA

Antzerkia bultzatzeko Zubi proiektua sortu dute Euskal Herriko zazpi antzokik, horien artean Kultur Leioak. Horrela, euskal antzerki-sorkuntza bat egiteko laguntza emongo diote artista edo konpainia bati, hainbat modutan: sorkuntzarako tokiak utzita, proiektuaren premietara egokitutako laguntza emonda (artistikoa, teknikoa edota kudeaketakoa), sortzeko diru laguntzak emonda eta hedapena zazpi guneetan segurtatuz. Ekimenean parte hartuko dute: Durangoko San Agustin Kultur Guneak, Ametx Zornotza Aretoak, Elorriko Arriola Aretoak, Luhusoko Harri Xuri-Karrikako arteen fabrikak, Donazaharreko Herri Antzokiak eta Aulestiko Artedrama Euskal Laborategiak.

Info+: harrixuri.blogspot.com.es

LEIOANDIKO LEHEN ETXE-ZOZKETA

Udagoienean zozketatuko dituzte Leioandi eremuan eraikiko dituzten Babes Ofizialeko 100 Etxebizitzak, Udalak jakitera emon duenez. Zozketan parte hartuko dute 2011ko azaroaren 30a baino lehen Etxebiden izena emonda zeukaten pertsonak. Etxebizitzen artean lau egokituta egongo dira mugikortasun urriko pertsonentzat, beste 61 gordeko dituzte Etxebiden duela lau urte baino gehiago izena emon zutenentzat, beste 29 etxebizitzak 25 eta 35 urte bitarteko laguntzatzat izango dira, eta azken seiak gordeko dituzte gainerako eskatzaileentzat.

Info+: www.leioa.net

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA


BIZKAIA
irrátia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairrátia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Ibai Eizagirre Sadon > *El sol de plata* publizitate sariaren irabazlea

“Ez dut oinarrituko nire etorkizuna sarian; lanpostu baterako ezin aurkez naiteke irabazle soil gisa”

Iberoamerikako Publizitate Jaialdi ospetsuan eskuratu du *Sol de Plata* saria Ibai Eizagirre erandioztarrak: Gazte Sortzaileak kategoriako bigarren saria da. Publizitatea ikasten ari da Eizagirre EHU eta laster emongo du jauzia lan mundura.

—Nolatan aurkeztu zara lehiaketara?
—Aspaldi ezagutzen dut lehiaketa, oso garrantzitsua da-eta. Baina ez nekien gazte sortzaileentzako kategoria zegoenik. Irakasle batek emon zigun haren barri eta parte hartzeraz animatu. Hilabete geneukan lana aurkezteko, jo eta su hasi nintzen lanean eta garaiz amaitzea lortu nuen. Animazio kontuetan probak egiten nentzen, fotogramaz fotograma, betidanik egin den moduan.

—Zelan aukeratu zenuen gaia?
—Lehiaketa-antolatzaileek proposatzen dute gaia: *breafing* edo gidoi bat emoten dute, nozio batzuk emoten dituzte, eta abestiak proposatzen dituzte eta horien artean aukeratu behar da zein erabili. Guk gidoi horretan oinarritu behar dugu gure *spot* edo iragarkia. Kasu honetan, 50eko urteetan girotuta egon behar zuen. Nik bideo bat atera nuen internetetik, eta zati bat marraztu nuen. Ehunka irudi egin nituen, bata bestearen atzean



Saritutako iragarkia ikusteko: vimeo.com/42118409

ipini eta musikagaz osatu nuen. 30 segundoko *spot*-a da emaitza.
—Unibertsitatean ikasitako teknikak erabili zenituen?
—Ez pentsa. Unibertsitatean teoria irakasten digute batez ere. Diseinu grafikoa gitxi ikasten da. Nik duela hamar urte ikasi nuen diseinu grafiko modulua. Orduan oinarria ikasi nuen, baina hortik haratago joan naiz orain. Esperimentuak eta saiakuntzak eginez ikasi dut, eta lan hau egiteko erabiltzea erabaki nuen.

Unibertsitatean esaten digute gure kabuz ere landu eta ikasi behar ditugula teknika desberdinak, han teoria orokorra emoten digute-eta.
—Unibertsitateetik lanerako jauzian eragin positiboa izango du sariak; hau da, ateak zabalduko dizkizu?
—Ez dakit, pentsatu dut neure burua sustatzeko kanpaina egitea, ez dut oinarrituko nire etorkizuna sarian: ezin dut aurkeztu nire burua irabazle soil gisa. Ez dut kurrikulum hutsa bidaliko. ○

Folklore jaialdia Altzagan

Trabudu Dantzari Taldea eta Gran Ballet Argentinok dantzatuko dute uztailaren 24an



Info+: www.granballetargentino.com

XXVI. Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da hil honetan Altzagan, urtero legez, eta bertan parte hartuko dute Astrabuduko Trabudu Dantzari Taldeak eta Gran Ballet Argentinok. Kirolegian egingo dute ikuskizuna uztailaren 24an, martitzenean, 19:30etik aurrera. Sarrera doan izango da, toki denak bete arte.

Trabudu Dantzari Taldea 1976an sortu zuten eta gaur egun 112 lagunek osatzen du, batzuk dantzariak, besteak musikariak. Kultur talde aktiboa da Astrabuduan, eta hainbat ekimenen antolatketan parte hartzen du: Olentzeroren kalejira, Santa Ageda, inauteriak edota

San Lorentzo jaiak. Gainera, inguruko udako dantza alardeetan eta Bizkaiko Dantzari Egunean parte hartzen du, eta nazioartean ere mugitzen da, beti ere euskal kultura eta folklorea gordetzeko ahalginean.

Jaialdiko bigarren parte-hartzailea urrunagotik dator, ordea: Gran Ballet Argentinok da eta 1963tik daroa argentinarrak dantzak zein musika zabaltzeko lanean. Hasieran Argentinan bakarrik erakusten zituzten beren dantzak baina, 1984tik aurrera nazioartera salto egin dute eta harat honat dabilta munduan barna. Ez galdu ikuskizun koloretsua. ○

PIRAGUA MAILEGUA UDA OSOAN

Gure itsasadarra hurretik ezagutu gura duzu? Urtero legez, aukera parebakoa daukazu Erandion: piraguan txangoak egin ditzakezu ibaian gora eta behera zapaturu. Horretarako, piragua mailegu zerbitzua abiatu du, beste behin ere, Udalak: doako zerbitzua da. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eskainiko dute piraguan ibiltzeko aukera. Altzagako ontzirekura jo behar duzu horretarako, egunean bertan. Zehaztu behar da doako zerbitzua erandioztarrentzat dela; gainontzekoek 10 euro ordaindu beharko dute piragua erabiltzeagatik. Udan zehar 32 urteera egingo dira, begiraleek lagunduta.

LANBIDE PRESTAKUNTZA IKASTARO BARRIAK

Datorren ikasturterako lanbide-prestakuntzarako ikastaroen barri emon du Udalak. Horien helburua izango da lehen mailako gaitasun profesionalak lortzea eta DBHko titulua lortzeko prestakuntza emotea; honako gaiak landuko dira: iturgintza, gozogintza eta okintza. Ikasturte bi izango dira eta, bigarrean, ikasleek praktikak egingo dituzte enpresetan. Gazteei zuzenduta daude ikastaroak: 16 eta 18 urte bitarteko gazteei (adina betetzeko data: 2012ko abenduaren 31), eta matrikula egin daiteke uztailaren 13ra arte, 09:00etatik 14:00etara, ikastegian bertan (Jose Luis Goioaga, 40).

Info+: www.erandio.net

UZTAILEAN JAIK GOIERRIN ETA ASUAN

Berreskuratu duzu indarra Martiartuko jaien ostean? Bada, hartu arnas, hau hasi besterik ez baita egin. Erandiokoa jaiak ez da oso ohikoa, astebururo dago festa han edo hemen. Ekainean ekin zioten maratoiari, baina asteotan ere badago nora joan: uztailaren 6tik 10era ospatuko dituzte Goierriko San Kristobal jaiak, eta hurrengo aste akabuan, uztailaren 13 eta 15 bitartean, Asuakoak. Ondo pasa!



www.ukaldizkaria.biz

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Karmen jaiak

• Uztailak 13, barikua:

- Koadrila jaitiera fanfarreagaz (Errekagane enparantza; 19:00)
- Dantzateke erromeria (Urgitxieta; 20:00)
- XXV. futbito txapelketaren finala (Urko; 21:00)
- Añoranza bolero taldea (Gatzarriñe; 21:30)
- Kontzertua: Chalwa Band + Zarama + Laket (Urgitxieta plaza; 23:00).

• Uztailak 14, zapatua:

- Umeentzako jarduerak (Urgitxieta; 11:00-14:00/17:00-20:30)
- Skate Jaia (Urko; 11:30-13:30/16:00-20:00)
- Aerobic maratokia (Txosnak; 14:00)
- Herri-bazkaria eta triziklo-poteoa (Txosnak; 15:00)
- Orkestagaz kalejira (Txosnak; 17:30)
- Kale-antzerkia (Urgitxieta; 19:00)
- Umeen erromeria (Gatzarriñe; 20:30)
- Kontzertuak: Matxura + Siroka + Triki ta ke erromeria (Urgitxieta; 23:00)

• Uztailak 15, igandea:

- Marmitako lehiaketa (Urko; 10:00)
- Umeentzako jolas-parkea eta tailerrak (11:00-14:00/17:00-20:30)
- Bitsa jaia (Urko; 13:00)
- Kale-antzerkia (Urko; 13:30)
- Lotso erromeria (Urko; 16:00)
- Tiragoma txapelketa (Urgitxieta; 17:00)
- Txan Magoa (Iberrota plaza; 19:00).
- The Mackensy's Band taldearen kalejira (Errekaganetik; 20:00)
- Kontzertuak: Sobieht, No Drama eta Su ta Gar (Urgitxieta; 23:00)

• Uztailak 16, domeka, Karmen eguna:

- Antzar jolasa baserriko kirolekin (Urgitxieta; 11:00)
- Meza (Karmengo eliza; 12:00)
- Umeentzako tailerrak (Urgitxieta; 17:00)
- Munduan berbena (Gatzarriñe; 19:00)
- Txorizoa denontzat (Urgitxieta; 20:00)

Lekukoa Larrabasterrara!

Karmenak uztailaren 13tik 16ra ospatuko dira; bermatuta dago **giro herrikoia eta jatorra!**



Su ta Gar talde ezaguna uztailaren 15ean igoko da oholtzara

Oraindino ez dira jaiak amaitu Sopenan! Sanpedroetako lekukoa di-da batean hartuko du Larrabasterrak uztailaren 13an. Lau egunetan zehar, Sopolako auzo hau kolorez beteko da, Jai Baztordeak prestatu duen egitarau luzeari esker.

Sanpedroetan bezala, karmenetan ere hainbat aldaketa egin ditu Jai Baztordeak. Hasteko, ekitaldi batzuen kokapena aldatu dute, auzo guztian jai-giroa zabalduz: Urgitxieta, Urko, Gatzarriñe e.a. Txosnagunea ere lekuz aldatu dute: Urko kiroldegiko aparkale-

kuan egon beharrean, metro-geltoki alboko aparkalekuan egongo dira, Urgitxieta plazaren alboan. Horrela, tabernetako eta txosnetako giroak integratuko dituzte, eta egunetan zehar txosnetan giroa egotea bermatuko dute.

Egitarauari dagokionez, karmenetan ere izen handiko musika-taldeak egongo dira: Su ta Gar, Zarama, Matxura, Siroka e.a. Horretaz gainera, koadrilen parte-hartzea bultzatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte: jaitiera, aerobic-maratokia, herri-bazkaria e.a. Parte hartu eta ederto pasa! ○

Aritza Saratxaga > Peña Txuri, paradisu galduaren bila

“Bideoa grabatu dugu paradisu galdu eta basati batean; eta beste surflari bakoa!”



Aritza Saratxaga, Peña Txuri Surf Eskolaren bulegoan

Olatu perfektuak eta surflari barik? Ametsa da surflari gehienentzat. Bada, Aritza Saratxaga eta Peña Txuriko lagunak horrelako paradisu galdua topatu dute Ertamerikan, eta bertan grabatutako irudiakaz *Paraiso Zero* dokumentala osatu dute.

—**Dokumental laburra grabatu barri duzue, zer ikus daiteke bertan?**

—Surfari buruzko bideoetan, normalean surfa baino ez da agertzen. Guk, ostera, ipuin edo istorio formatua eman diegu, eta errealitatea eta fikzioa nahastu ditugu.

—Paradisu batean egin duzue grabaketa, ezta?

—Bai, Ertamerikan egon ginen martxoan, eta bertan grabatu genuen. Egia esateko, ez dugu leku zehatza esan gura, paradisu galdua delako, basatia... eta surflari bakoa! Hori dela eta, dokumentalean ez dugu leku zehatza aipatzen. Izan ere, gaur egun, olatu on bat topatzea surflari barik nahiko gaitza da.

—Eta zelan lortu duzue leku hori topatzea?

—Madeirara egindako surf bidaia batean lagun bat egin nuen, eta han bizi zela kontatu zidan, kristoren olatuak zeudela eta bisitatu behar nuela. Eta joan nintzeanean, zoragarria iruditu zitzaidan. Hori dela eta, orain bost bat urte lur zati bat erosi nuen, eta han etxetxo bat egin genuen. Entrenatzen ditudan ikasleak erosten ditut hara entrenatzera (martxoan 22 lagun egon ginen han), argazkiak ate-

«Surfean egiteaz gain, gazteek hango bizimodua ezagutzeko aukera dute»

ratzera... Bestalde, surfean egiteaz gain, gazteek hango bizimodua zelakoa den ezagutzeko aukera dute; flipatzen dute, esperientzia oso potentzia delako.

—**Emanaldiren bat antolatuko duzue?**

—Oraindino ez dugu erabaki bideoa zelan zabalduko dugun; Kurtzion emanaldi bat antolatu dugu dagoeneko. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
podologiaoinutsik@gmail.com



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Santa Ana jaiak

- **Uztailak 21, zapatua:**
 - Pregoa eta koadrila jaitsiera (19:00)
 - II. Herri Krosa (10:45)
 - Margo-tailerra (18:00)
 - Euskal Herriko sokatira txapelketa (18:00)
 - Haur-jolasak: herri-kirolak (18:30)
 - Pilota partidak (20:30)
 - Buruhandi txapelketa (21:00)
 - Suzko zezena (21:30)
 - Kontzertuak: Bizio, Eraso eta The Karabans (22:30)
- **Uztailak 22, domeka:**
 - Artzain txakur erakustaldia antzarakaz (10:00)
 - Kalejira galiziarra (12:00)
 - Umeentzako antzerkia Axganen (13:00)
 - Herri-bazkaria (15:00)
 - Joko tradizionalak (17:00)
 - II. Sokatira txapelketa herrikoa (18:30)
 - Berto-saioa: I. Paia, E. Lekue, G. Ostolaza eta J. Soto (19:30)
 - Karaokea (20:30)
 - Kontzertuak: Napalm eta Triki (22:30)
- **Uztailak 26, eguena, Santa Ana:**
 - Meza (12:00)
 - Hamaiketako eta umeen dantzak (13:00)
 - Tor magoa (19:00)
 - Sardina-jana eta sagardo upelak (19:00)
 - Arantza eta Pantxo (21:30)

Heldu da folklore **jaialdia!** Uztailaren 11tik 15era, Simon Otxandategi dantza taldeak antolatzen duen **erakustaldia**



Polinesia, Errusia, Mexiko eta Poloniatik helduko dira dantzariak, besteak beste

Laugarren urtez, Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatuko du Simon Otxandategi Dantza Taldeak, uztailaren 11tik 15era. Hiru urtean behin ospatzen den jaialdi honetara mundu osoko dantzariak batuko dira: Polinesia, Errusia, Mexiko, Polonia, Alemania e.a.

Euskal Herriko dantzak ere ez dira faltako Lantzarten jarriko duten karpan. Izan ere, Iñaki Gonzalez taldeko buruak adierazi duenez, *“jaialdia ez da folklore hutsa, zortzi egunetan ohiturak eta kulturak partekatuko ditugu; Euskal Herriaz eta bere jendeaz irudi egokia eroatea gura*

dugu”. Jaialdian parte hartuko duten lagunak uztailaren 9an helduko dira Berangora; horrenbestez, zortzi egunetan herriak 200 auzokide gehiago izango du. Aurreko edizioetan legez, dantzariak berangoztarren etxeetan lotuko dira lotan, eta hainbat ekimen antolatu dizkiete Euskal Herria eta gure kultura ezagutarazteko.

Jaialdia uztailaren 11n hasiko da eta folklore-talde guztien emanaldiak ikusteko aukera egongo da hilaren 15era arte, debalde. Horrez gainera, herri-bazkaria eta erromeria ere egongo dira. ○

Itxaso Martin > Gorlizko Berdintasun zinegotzia

“Herriaren errealitatea aztertuko dugu berdintasuna ardatz izanik”



Lau hilabete iraungo du diagnostikoak

Aurten Emakunde Gorlizko Berdintasun sailari 8.800 euro inguruko dirulaguntza emon dio herrian berdintasunaren gaineko diagnostikoa egiteko; horregatik, diagnostikoaren nondik-norakoak ezagutzeko, Itxaso Martinegaz, Gorlizko Berdintasun zinegotziagaz egon gara.

—Zein da egingo duzuen diagnostikoaren helburua?

—Diagnostikoaren helburu nagusia adin ezberdinetako emakume taldeak sortzea da, etorkizunean emakume elkarteak sortu ahal izateko. Emakume talde horien bidez beharrak, kezak eta nahiak ezagutzea da xede nagusia. Hare, mankomunitate mailan badago diagnostiko bat eginda, baina, guk honen bitartez herritarren diagnostikoaren osaketan inplikatu nahi ditugu, eta, bide batez beraiekin batera herriko berdintasun diagnostikoa osatuko dugu.

—Zein izan da diagnostikoa egiteko arrazoi nagusia?

—Alde batetik, Gorliz ez daukagu emakume elkarerik, eta diagnostikoaren bidez aukera ikusten dugu emakume elkarte bat sortu ahal izateko. Beste

«Etorkizunean Gorliz emakume-taldeak egotea espero dugu»

alde batetik, herriaren errealitatea aztertuko dugu berdintasuna ardatz izanik.

—Zelan burutuko duzue diagnostikoa?

—Emakume eta gizonei egingo zaizkie elkarrizketak, hainbat alorretan; hezkuntzan, kirolean, kulturean... Herri-tarren parte hartzea ezinbestekoa izango da, baita elkarten ekarpenak ere.

—Zein uste duzue izango dela herritarren jarrera?

—Uste dugu jendeak pozik parte hartuko duela, aurrekoetan bezalaxe. ○

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

UZTAILAREN 4AN PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PLENTZIAN

Plentziako frontoian izango dira uztailaren 4an Euskal Herriko pailazorik irribarretsue-nak. Hortaz, 16:30etik 19:00etara Plentzia zein Gorlizko txiki eta helduek aukera izango dute irri koloretsuez gozatzeko. Sarrerak Kultur Etxeetan salgai.

PLENTZIAKO I. FILM LABUR LEHIAKETA LASTER

Aurreko hilabeteotan Mikro Film Short jaialdiaren barri eman dizugu, eta konturatu orduko, haregaz gozatzeko aukera heldu da; izan ere, uztailaren 6an hasiera emango diote egun bi iraungo duen lehiaketari. Egun bi horietan, 19:00ak aldera Eleiz enparantzan hitzaldiak, zinema-beltza bideo-mapping edota musikagaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

TALDE AGRO-EKOLOGIKO BARRIAREN AURKEZPENA

Hil batzuk igaro dira Uribe Kostako hainbat ekoizle batu eta talde barria sortu zutenetik. Nekazaritza agro-ekologikoaren bidean, eta elikadura burujabetza lortzeko asmoz lanean hasi dira daborduko. Horren albotik, uztailaren 21ean Sopelan, Uribe Kostako asanblada agro-ekologikoaren aurkezpena egingo dute; goizeko 10:00etatik aurrera, azoka, tailer eta hainbat ekimenegaz gozatzeko aukera izango da.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

Uda heldu, eta herriz herri, jairik jai abiatzeko prest



Karmen egunean, 16an, izango da aurten sardina-jana

Armintza, Urduliz... urtero legez, sa-soi honetan, udagaz batera jaiak piztu dira gurean; eta guk geuk ez dugu beste aukerarik: haien barri eman, eta noski, haiekaz gozatu. Horrenbestez, datozen jaien inguruan informatzera gatoz. Horrela, Armintzako Karmen jaiak abiatuko gara. Horiek uztailaren 12an hasi, eta 16ra arte iraungo dute, eta hamaika eskaintzagaz gozatzeko aukera izango dute armintzarrek baita hara bertaratzen direnek ere: ausartenentzako gastronomia dema, Patatadantza, tanga-lasterketa edota zapatuan, hilak 14, izango den Txapel Reggae Jaialdia horietako batzuk baino ez dira izango. Gainera, haurrek ere hamaika ekimene-gaz gozatuko dute: zirko-tailerra herriko plazan, umeentzako puzgarriak, aurpegia margotzeko tailerra edota ur-jolasak; ondo baino hobeto pasa dute, bai! Armintza atzean utzi barik, Ur-

dulizko Santa Marineko jaiak ere zain ditugu. Bigarren horiek uztailaren 20an hasi eta hurrengo egunean amaituko dira. Lehenengo egunean, arrastiko 19:00ak aldera, Santa Marinatik Antso-nekoa plazara jaitsiera izango da; horretan, dantzariak eta buru handiak ibiliko

Urdulizen, uztailaren 21ean tortilla-txapelketa izango da Santa Marinaran

dira. Ondoren, iluntzean, bederatzietan jai-akabua izango da plazan bertan, lehenengo dantzaldia, eta ondoren, txokolata-jana egongo da. Azken egunean, zapatuan tortilla-txapelketa egongo da, ostean jolasak, eta jaien akabuan sariak banatuko dira Santa Marinaran, bertan. Daborduko txupinazoak jaurtitzeko prest daude, garra piztu, eta... ez da egongo atzera bueltarik: hiru, bi, bat... gozatzera!

Uzt. 3 - Uzt. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO
▶ **Sua** filmaren argazkiak. Uztailaren 14 arte. Algortako azokan.

ERANDIO
▶ **Astrabuduko Fotoclub taldearen argazkiak.** Uztailaren 3tik aurrera. Altzagako El Coliseo tabernan.

GORLIZ
▶ **Ana Ansotegiren margolanak.** Uztailaren 10 arte. Erakustaretoan.
▶ **Jose Manuel Perez Benitoren margolanak.** Uztailaren 11tik 20ra. Erakustaretoan.

ANTZERKIA

GETXO
▶ **Ali Baba y los 40 ladrones.** Uztailak 2, 19:00etan. Areetako Geltokia plazan.

GORLIZ
▶ **Pirritx, Porrots eta Marimotots.** Uztailak 4, 16:30ean eta 19:00etan. Pilotalekuan.

SOPELA
▶ **Orsai.** Uztailak 14, 19:00etan. Urgitxieta plazan.

MUSIKA

GETXO
▶ **El Consorcio.** Uztailak 14, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. 15 euro.

ERANDIO
▶ **Altzaga abesbatzaren XV. urteurrena.** Uztailak 7, 20:00etan. Altzagako San Agustin elizan.



Sorpresarik ez da falta izaten bertso-jaialdi zoro honetan

▶ **Azoka**

Bertso Jaialdi Mundiala hilaren 11n

Dagoeneko irrika zaude urteko bertso-saiorik bereziarena eta dibertigarriena ikusteko? Zaude lasai, gutxi falta da-eta Bertso Jaialdi Mundialerako. Uztailaren 11n izango da, eguaztena, 21:00etan, Algortako Biotz Alai plazan. Ohi legez, lehen mailako bertsolariek abestuko dute: Xabi Paya, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Fredi Paia, Andoni Egaña eta Jon Maiak; zer sorpresa ekarriko ete dute aurten Algortako Bertso Eskolakoek? Zer gairen inguruan ipiniko ditu bertsotan Aitzol de Castrok? Zertaz mozzorotuko dituzte? Nor agertuko da saioaren erdian? Piztu zaizu jakingura, ezta? Uztailaren 11n saiora hurreratu beharko duzu gogoa asetzeko. Bota bertsoa!

• **Non:** Algortako Biotz Alai plazan • **Noiz:** Uztailaren 11n, 21:00etan

▶ **Folklore Jaialdia.** Uztailak 24, 19:30ean. Altzagako kiroledegian.

GORLIZ
▶ **Errezitaldi poetiko-musikala.** Uztailak 12, 20:00etan. Sertutxenean.
▶ **Lirain Abesbatza & Bilbao Live Elektro-Orkestra.** Uztailak 21, 20:00etan. Elizan.

SOPELA
▶ **Chalwa Banda, Zarama eta Laket.** Uztailak 13, 23:00etan. Urgitxieta plazan.

▶ **Matxura, Siroka eta Triki ta ke.** Uztailak 14, 23:00etan. Urgitxieta plazan.
▶ **Sobieht, Nodrama eta Su ta gar.** Uztailak 15, 23:00etan. Urgitxieta plazan.

PLENTZIA
▶ **Zuzendarien abesbatza.** Uztailak 21, 21:00etan. Elizan.

SOPELA
▶ **Dantza Jaialdia.** Uztailak 22, 20:30ean. Urgitxieta plazan.

ZINEMA

ERANDIO
▶ **Sherlock Holmes.** Uztailak 6, 22:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Doan.
▶ **Los Descendientes.** Uztailak 13, 22:00etan. Altzagako Irailaren 23a plazan. Doan.
▶ **La invencion de Hugo.** Uztailak 20, 22:00etan. Erandiogokoako Euskadi plazan. Doan.

PLENTZIA
▶ **Plentziako I. Film laburren lehiaketa.** Uztailak 6 eta 7.

GETXO
▶ **Gaurik laburrena.** Uztailak 9 eta 10, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. Doan.

BESTEAK

ERANDIO
▶ **Aisialdi-terrazak.** Uztailaren 2tik aurrera. Irailaren 23a, Josu Murueta eta Euskadi plazetan.
▶ **Motorren elkarretaratzea.** Uztailak 21, egun osoan. Astrabuduan.

GETXO
▶ **Letren terrazak (Udako Liburutegiak).** Uztailaren 2tik aurrera. Areetako Geltokia, Iturgitxi eta Sarri plazetan.

GORLIZ
▶ **Jubilatuaren bazkaria eta areto dantza.** Uztailak 7. Pilotalekuan.
▶ **Pala Txapelketa, Santiago 2012.** Uztailak 21 eta 22, 12:00etan. Pilotalekuan.

PLENTZIA
▶ **Historia jardunaldiak.** Uztailaren 11tik 13ra. Gofi Portalen.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Barrikako sanjuanak

Solstziogaz batera, eskualdeko hainbat herritan San Joan jaiak ospatu ziren; eta hortxe daukazue Barrikako lekukoak. Hantxe ibili ziren txiki, heldu zein nagusi hamaika ekimenegaz gozatzen: pala-partida, txitxi-burduntzia, umeentzako tailerrak, txistulariak, bertso-saioa e.a. Bertakoek ez zuten aukerarik izan aspertzeko; pena, dagoeneko, (san)joanak joan direla, eta orain datorren urtera arte itxoin, besterik ez da lotzen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Paellak Getxon

Azkorriko landan

Uztailaren 22an izango da Getxoko Itxas-Argia elkartearen Paella Lehiaketa, 57. edizioa. Aixerrotako landan egiten da, baina Azkorriko pinudian egiten hasi zen, 1956an. Lehenengo lehiaketa hiru lagunek bultzatuta egin zen, hauek: Damian Ayo, Antonio Bilbao eta Felix Yurrebasok. Irurena elkarte osatzen zuten hiru kirol-zaleek eta Azkorri futbol taldearen zelaiaren ondoan antolatu zuten lehenengo Paella Lehiaketa; hala egin zuten 1967 arte. Ez dakigu ziur zein urtetakoa den irudi hau, baina bai garai hartakoa dela. Gaur egun, ospe handia dauka lehiaketak eta ehunka paella aurkezten dira, baina orduan ere elkartzen ziren talde nahiko, behintzat argazkiko paella kopuruari erreparatuz gero. Irudi bitxia da, batez ere apaizak ikustea paellak epaitzen. Ia 60 urte igaro dira ordutik, aurtan ere maila emongo dute getxoztarrek?

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

ETB2 kateak ematen duen *El Conquistador del Fin Mundo* (Globomedia) programako zuzendari-taldean dihardu, hasieratik Txema Montoyak (Erando, 1947). Erandion Ikus-entzunezko ikasketak eta Leioan (EHU) Kazetaritza ikasketak egin zituen. Ia beti telebistan egin du behar, baita irratian ere, Radio Euskadin, kirolen arloan, urte betez. Telebistan hamaika egitekotan jardun du: aurkezle, zuzentzen e.a. 26 urte eman ditu hedabide horretan, azkeneko zortziak *El conquis*-en. Datorren urtean ere horretan jardungo du, 9. edizioa martxan da; *casting*-ak hil honetan egingo dira: Bilbon uztailak 9-11 (EITBren egoitzan), Gasteizen hilak 12-13, ostean, Iruñean eta Donostian ere bai.

Txema Montoya

Konkistatzaileen buru erandioztarra

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hasiera-hasieratik zabilta *El conquis*-en; orduko zer duzu akorduan?

—Hainbeste urtean *Basetxea* egin ostean, hasierako *Conquis*-a guretzat aukera bat izan zen. Aukerak, kasualitatez sortzen dira, gehienetan... Globomediak, gure enpresak, bazuen enpresa-lehengusu bat; eta bazuten programa bat han, Patagonian. Jakinda ETB-k *reality*-en aldeko apostua egin zuela, galdetu zuten ea aukerarik ba ete zegoen Euskal Telebistan emoteko... Hala urten zen, kasualitatez! Orduan, uste genuen lehenengoa eta azkenena izango zela, kristoren mugida izan zen, arazo piloa, guretzat egoera barria, erdi galduta, beste enpresa batentzat lanean, jende asko... Ordura arte 25 bat laguneko taldeagaz egiten genituen *reality*-ak. Halere, lehen ekitaldia ondo joan zan, arrakasta gehiegi izan ez arren. Bigarren edizioa egiteko aukera emon ziguten Telebistakoek, ordutik geu hasi ginen apur bat dana kontrolatzen; hango taldea eza gututa ere hobeto... Aurrerantzean, apurka, formatua gure erara moldatu dugu. —Zein da zure egitekoa, zure beharra?

—Gure lana, hasieratik, dena apur bat kontrolatzea izaten da: grabaketak zenbat egunetan egingo diren, non, zein ekintza eta joko egingo diren, zein egoeratan biziko diren lehiakideak eta kapitainak, *casting*-ean parte-hartzaileak aukeratu, prentsa-oharrak prestatu, eztabaida saioa antolatu, edizinoa apur bat kontrolatu e.a. Hasieratik amaierara arte, geuk kontrolatzen dugu dan-dana: zenbat janari emon, arropa, zein galdera egin... Urtebete behar izaten dugu: grabatzeko hilabete eta


horiengatik. Lehenengo urtean, ezagutu-ta *Basetxean* lehiakideen jarrera, enpresakoei esan genien: “*ikusitu ditugu zuen jokoa bestelako realityetan, Argentinan, Kariben, Thailandian e.a. Gure saiokoek, gogortasun aldetik, zuen jokoen bikoitza izan behar dute!*” Partaideek %120 emoten dutelako, jendea ez datorrelako begira egotera, izerdia bota barik... Jendea dana emotera etorriko da, euskaldunak halakoa garelako, oso burugorrrak; gainera horrelako jendea aukeratzen dugu, lehia-

“Urtebete emoten dugu programa egiten, 100 lagun baino gehiago gabilta lanean”

piku, editatzeko 4-5 hilabete, eta aurretiko prestaketa-lan guztia (*casting*-a, leku-tzeak, jokoak, probak e.a.) ahaztu barik! —*El conquis*-en bereizgarri nagusia-edo, batez ere joko, eguraldi eta lekuen gogortasuna izaten dira.

—Bai, gu beste *reality* batzuetatik alde horretan desberdintzen ahalegindu gara; askoz gogorrago da aipatutako baldintza

tzeko gogotsu dagoena. Eta guk, urtez urte, gehiago estutzen dugu, esaterako: txarri gordina jateko emon genien behin, hurrengoan odola edateko, gero hori erreka barruan daudela egin behar dute, ostean lotuta e.a. Hangoek harritura: “*pero ustedes estan locos!?*” Eta guk: “*ikusiko duzue, egingo dute, ziur!*” Hango argertinar taldeagaz antolatzen ditugu jokoak;



eurek proposatzen dituztenak jaso eta aldatu, lekuak edo zerbait erantsi, gogorra go bihurtzen ditugu e.a. Behin jokoak prestatuta, egutegia antolatzen dugu, noiz zein. Batzuetan lehiara doan partaidearen arabera moldatu behar izaten ditugunez, ordezko jokoak ere prest izaten ditugu.

—**Baina kritikatu zaituztete; emakume-entzako zailtasunak handiagoak direla e.a. Halere, emakumezko irabazlerik izan da.**

—Zailtasun handiagoa izan dezakete, bai; ez bakarrik emakumeek, partaide “ahulagoak” ere egoten dira. Aukerak berdintsu-agoak izan daitezen ahalegintzen gara: probak moldatzen ditugu, lehiarako, laguntzaileak aukeratzen uzten diegu e.a. Guretzat ere ez da erraza; askotan duela itzela antolatu, eta lehiakideen artean desberdintasuna handia dela ikustean, aldaraztera “behartuta” gaude, dueluak ere emozioa, ikusgarritasuna galtzen baitu. Eurek ere badakite gogorra izango dena, hasieratik esaten diegu. Jendeak dio: “*zer dela-eta jarri diote horri proba hori?! A zer bidegabekaria!*” e.a. Batzuetan gu ere konturatzen gara, onartzen dugu hala dela, saiatzen gara egokitzen, baina sarri ezin dugu besterik egin... Egutegiak eta aurrekontuak ere mugatzen gaituzte.

—**Patagoniaraino, Munduaren Akaburaino, joan beharra dago ETB-n saio batek arrakasta izan dezan?!**

—Berton, *Basetxeak* urte nahikotxo iraun zuen, arrakastatsu. Baina, egia da, hemen zailagoa dela; grabatzeko lekua aurkitu eta gero hor mugitzeko edo grabatzeko zailtasun piloa izaten ditugu Euskal Herrian; hori ez dakit onerako ala txarrerako den... Ez dugu gauza handirik apurtzen, baina... Udalen kontuagaz beti borrokan ibili gara. Aurrekontu aldetik ere, baldintza gogorra goetan lan egin beharko genuke. Aurrekontu berberagaz han, hemen baino, jende gehiagok lan egin dezake... Jende piloa gabiltza lanean, 100 lagun baino gehiago: 8-10 kamera, 8 audio-teknikari, produktio-logistikan 5-6, 5-6 gidolari-erreportari, 7-8 editore, buruen taldean 6-7, au-

to-gidariak 15-16, kanpamendu bakoitze-ko taldean (sukaldaria, soroslea e.a.) 5-6...

—**Aurten aldaketa nabarmenak izan ditu; hazten, garatzen joan da programa.**

—Errazena aurreko urteko eskema errepikatzea izango zen, ondo doanez, jarraitzaileak badituenez, aldaketa txiki batzuk egin eta aurrera... Ostera, beti saiatzen gara, gu ere ez aspertzeko, zerbait gehitzen; jende-

“Partaideen arteko lehiari, ahalegintzen gara aukerak berdintzen, baina batzuetan ezin izaten dugu...”

ak ere zerbait barria, ezberdina ikus dezan. Aurtengoa oso berezia izan da, baina benetan zaila; taldea Iguazuraino eroate! Barne bidaiak egiten ditugu, Patagonian bertan, 1.500 km-ko bidaiak, eta ez da erraza; baina, Iguazuraino 3.000 km baino gehiago dago! Gainera, jakinda ez garelako bertan egon, ez garelako egundo oihan beroan egon. Baina, hangoek esan ziguten egin zitekeela; eta ur-jauzietan egiteko baimena lortu zuten! Bagenekien lehenengo urtean beti zailagoa dela, ez dugulako lekua ezagutzen, baldintza ezezagunak... Halere, ondo urten da! Gu denak emanda! Arazoak egon baziren ere. Proba bat azkenean ezin izan genuen egin... Saioa ikustean, badakigunez zer gertatu zen, pena emoten digu, akordaten garelako zein zen asmoa eta ezin izan genuela burutu...

“Hemen grabatzea zailagoa da; aurrekontu aldetik ere baldintza gogoragoetan lan egin beharko genuke”

—**Argentinarek eta “kanpokoek” zerpentsatzen dute? Zer esaten dizute?**

—Harrituta daude; onartu digute ez zutela uste hainbeste denbora iraungo zuenik. Asko ikasi dugu, mundu zabalean *reality* piloa egiten dituelako enpresak, baina eurerek ere ikasi dute gugandik. Gure formato bordin-antzekoa beste herri batzuetan ere

egiten saiatu dira. Grezian, oso ondo funtzionatu zuen, krisia dela-eta enpresak ezin izan du jarraitu. Argentinan, ostera, oso txarto. Gogortasuna, probak direla eta, euskaldun jendearentzat bereziki egindako saioa dela esaten digute. Guk gero eta zailago ipintzen dugu, putakeria eurentzat ere, lan gehiago egin behar izaten dutelako; azkenean, barre egiten dute. Harrituta

bai, baina ikusi dute ez garelako errotatik! Funtzionatzen duelako, eurentzat lana delako; hasieran mesfidati, orain “*zer gura duzue? Ez dago arazorik, egingo dugu...*”.

—**Krisia aipatu duzu, baina 9. Conquisamartxan da, laster dira casting-ak.**

—Telebistak badaki programa garestia dela. Ez dut esango behartuta, baina, hainbestelako arrakasta duen saioa ezin duela lortu edo ikusten du. Ez dakit Telebistakoek programa gustuko duten; batzuek bai, beste batzuek esaten dute ez dela telebista publikorako programa eredu... Arazo nagusia Argentinako egoera ekonomikoa da, hasieratik; hango inflazioa. Euskal Herrian programa bat egiten badugu, hurrengo urtean, aurrekontu aldetik, igoera KPI-ren arabera izan ohi da. Ostera, Argentinan urte batetik bestera aldaketa

tak, baina saio gehiago eskaintzen dizkio, denbora bertsuan saio gehiago grabatu behar izaten ditugu. Hala behintzat aurrera egin ahal dugu. Putada da, programak garatzeko, gauzek gertatzeko denbora behar dutelako. 15 saio beharrean, denbora berean, 20 egin behar baditugu, goraino ibiltzen gara; kontu asko ezin grabatu, probak ezin egokitu, hanka sartzeak...

“Ez nintzateke sekula joango honelako programa batera, ez orain, eta uste dut, ezta 24 urtegar ere!”

Baina, hori ala ezer ere ez! Hala gabiltza! —**Urteotako zuretzako une gogoangarrietakoak, onak eta txarrak, zeintzuk?** —Oso latzak izan ziren une bi; orain lasaitu bai, baina horien kontura barre egiten dudarik ezin esan. Lehenengo edizioan neska bat oso-oso larri ipini zen, hain zaila ez zen proba arrunt batean, haize barik lotu zen, oxigenoa falta, ospitalera eroan behar izan genuen, bihotz eta arnas gelditzeagaz heldu zen... Konsziente ginen hor amai zitekeela dena betiko! Ezjakin edo trauskil izateagatik, prestatuta ez egoteagatik, oxigeno-balbula ez zebilela-eta inork ez zigulako ezer ere esan... gertatu zitzaiz-

gun. Baina hirugarren edizioak!? Gofñi legionella azkarrak kutsatuta, erdi-hilda... Farnatu Mikel Gofñi hiltzeagatik! Baina tipo indartsua da, basatia, osatu zen! Bestalde, lehiakideak ere arazo latzak: kanpamenduetako batetik ihes egin zuten, sua piztuta utzi eta borda erre egin zen! Arropa ere bai; eurak erdi mozkor... Hurrengo egunean edurretar zihozen eta arropa

barik! Herri galdu batean geunden, arropa lortu ezinik! Egun bi lo egin barik! Beste batzuek ere ihes egin zuten, mozkortu, tipo bat jotzen ahalegindu... Jendeak jakin eta jipoitzeko asmoz joan zitzaizkien, bitartean ipini behar izan genuen... Saiatu gara lehiakideak hobeto aukeratzen, ezagutzen. Hori ere oso garrantzitsua da, horretarako nahi beste denbora ez badugu ere. Programa zertan datza hobeto azaltzen diegu, zelanbait kontrola dutela, ez dela mugako biziraupen egoera, badituela “baldintzak”... Baten batek esan duelako: “*nik uste nuen benetako biziraupen egoera zela, ihes egin eta behi bat hilko dut...*”

—**Animaliekiko tratuegatik ere kritikak.**

—*Basetxeak*-n hemen baino gehiago...

Baina hemen ere bai.

—**Momentu onik ez duzu aipatu!**

—Amaitzen denean! Askapena! Proba denak amaitu direnean, “*datorren urtean ez gatoz!*” Batez ere lehenengo urteetan... 3. edizioa ez zela bukatuko uste nuen! Ardurara hori zure gain hartzen duzu; hainbeste jende lanean, telebista, zer esanak. Eguneroko gauzakaz gozatzen dugu, edozein txikikeriaz pozten gara, adib: proba bat egin ostean saria ematen diegunean, esaterako, etxekoen eskutitza; eta erredaktoreak *walky-talky*-tik: “*itzuli dira, eta negarrez hasi dira, oso hunkituta; oso polita izan da!*”, Itzel! Badago, saio hau eginda... Halako eguneroko helmugetara heltzean pozten gara. Etxeko jendeagaz berba egiten duzunean ere ederra da. *Casting*-etan ere oso ondo pasatzen dugu, eta galbahea egiten dugunean ere bai...

—**Zuek probaren bat egin duzue?**

—Neuk ez! Gutariko batek beti probatzen du; badugu joko-taldea, horretako arduraduna ere, baina horrek ez du egundo egiten! Taldeko “morroiek” baino! Neuk ez! Ez nintzateke sekula joango honelako programa batera, ez orain, eta uste dut, ezta 24 urtegar ere! ○

Eta hurrengoan... Jarraituko du...

—**Badakigu hurrengo urtekoaz ezer gitxi aurreratu ahalko diguzula, baina barrikuntzak egongo dira?**

—Bai, ziur. Oraindik ez dakigu zer, hor gabiltza. Kapitainen kontuari ere heldu beharko diogu. Beti gabiltza bordin; Korta, Juanito, Gofñi... Beti, programa amai-eran oso txarto bukatzen dugu! Eurak erdi haserre, gu ere bai, “*honi ez diogu inoiz ere deituko...*” Denbora pasatu eta, tira, erdi lagunak garenez... Lagunak izatea ona eta txarra ere bada, ezin ditugulako hainbeste puteatu! Uste dute eurak bakarrik puteatzen ditugula; ez da egia, horretarako oso demokratikoak gara: denak berdin puteatzen ditugu! Lekutzean

aldetik ere aldaketa itzela egongo da; ezin dut gehiagorik aurreratu! Sorpresa erraldoia izango da. Jendeak, telebistakoek eta gure produktoreak ere esaten dute: “*hainbesteko arrakasta lortu duen programan zergatik aldaketak?*” Eta guk: “*hau dagoeneko ezagutzen dugu, zergatik ez ezagutu beste leku bat?!*” Jendeak ere ikus dezan, antzeman dezan lehen hura, orain oihana, edo glaziarra... Horregaz jolastan ahaleginduko gara, ahal den neurrian...

—**Zure etorkizuna hor ikusten duzu? Ez zara nekatu?**

—Momentuz bai. Egia da bueltatzen garenean, ni behintzat, nekatuta heltzen

naizela, erreta! Buenos Airesera bueltatzean jendeak agur parranda botatzeko gogoia izaten du, ni pozik dena amaitu delako baina erdi-nazkatuta... Jendeak: “*ondo eta amaitu dugulako goazen ospatzerara...*” Eta nik: “*bai, pozik; baina etxera joan nahi dut!*”. Itzultzean, lehenengo astea, martzianoen antzera emoten dut. Hila joan eta barriro gorputza gogotsu jartzen zaizu berriro ere ekiteko! Gainera, ezin dugu aukeratu, telebistan! Hau ala hau! Egia da, kazetari moduan, bestelakoren bat egiteko gogoia sentitzen dudala, nahiz eta hau urterik urte desberdina eta polita izan... Baina hau da dagoena, eta hau egingo dugu...



Desfilearen aurrekoak

Hodei Torres bilbotarrak eta Ane Basagoiti algotarrak argazki-kamera eskuan hartu, eta desfile baten aurre-prestaketan murgildu dira, eta bidean, zegaz eta, Sonia Lopez getxoztarraren orrazkerakaz topatu dira. Horrenbestez, Lopezek egindako orrazkera orijinalakaz goza dezakegu; betiere, artea eta ile-apainketa uztartuz. Eta horra, emaitza: ohikotasunetik urrun, eta ikusgarritasunetik gertu dauden orrazkerak. Bai, oraingoan ere, aniztasunean datza aberastasuna.

Argazkiak: **Hodei Torres eta Ane Basagoiti**







Uribe Kosta gerra eta diktadura garaian > iraganaren gomuta

Historia garaikidearen eskutik, Plentzian eta Uribe Kostan barrena

Uztailaren 11, 12 eta 13 bitartean Uribe Kostan Gerra Zibila zein diktaduraren lekukotasunak hitza hartuko du Plentzian bertan ospatuko diren V. Historia jardunaldietan. Horrela, garai horietan bizitako hamaika borroka, bizipen, eraldaketa... mintzagai izango dituzte.



Gerra Zibilak presentzia handia izango du

Plentzia eta Uribe Kostako V. Historia jardunaldiak aurki izango dira; hain zuzen, uztailaren 11n hasi eta 13an amaituko dira. Hiru egunean zehar guda zibilean, baita diktadura garaian ere eskualdean igarotako une historikoei arreta jarriko diete jardunaldiek. Lehenengo egunean, berbarako, uribekostar gudarien inguruko hitzaldia ez ezik burdin hesiaren inguruan ere hitz egingo dute historialariek eskainiko dituzten hi-

tzaldi laburretan. Jardunaldien bigarren egunean, barriz, Antonio Araluce arkitektuari buruz egingo dute berba, frankismo garaian Plentzian bertan eginiko

hainbat obra gogora ekartzeko asmoz. Pedro Basañezek emandako hitzaldi horretaz gain, Gonzalo Duok “Fran-

Uztailaren 11n uribekostar gudarien inguruko hitzaldia eskainiko dute

kismoaren errepresaliak gorria eta separatista izateagatik” komunikazio laburra eskainiko du. Ondoren, Raul Lopez Uribe Kostako mugimendu antinuklearrari buruz arituko da. Horrez gainera, egun horretan bertan, gerran zein ondorengo urteetan Uribe Kostan bizi izan zen errepresio eta ordena publikoa mintzagai izango ditu Carmelo Landa Montenegrok, horren guztiaren barri izango dugu hark eskainiko duen hitzaldiaren



Mugimendu antinuklearraren inguruko berbaldi laburra uztailaren 12an, 19:00etan

bidez. Landaren hitzetan “errepresio era ezberdinak bizi izan ziren: errepresio legala, ekonomikoa, erbesteratzea...” Azken egunean, ordea, gerra zibila, eta ondorengo garai ilunak baztertu, eta hitzaldiek frankismo garaian ere Uribe Kostan emandako fenomenoek bide emongo diete; alde batetik, Lurraldearen antola-

keta eta ingurunea Uribe Kosta-Butroen; beste alde batetik, frankismo garaian Plentzian eredu hiritarraren ezarpenari buruz hitz egingo du Jose Maria Beascocheak. Horrenbestez, gerra zibila zein frankismoaren alderdi ilunena ez ezik, bestelako une historikoen berri ezagutzeko abagunea ere izango dute jardunaldietan.

dietara bertaratuko direnek.

Errepresioa mintzagai

Jardunaldien bigarren egunean, arestian esan bezala, Carmelo Landa Montenegroren eskutik, eskualdean, bereziki Mankomunitateko herritarrek bizi izan zuten errepresio zein ordena-sozialaren inguruko hitzaldia eskainiko du. Hark garai errepublikanoan zein frankistan bizi izandako errepresio era ezberdinak gogora ekarriko ditu: “Eskumakoak ziren hamar herritar

Garai bietan bizitako errepresioaren barri: Errepublikan zein Frankismoan

atxilotu zituzten Errepublikan, eta ontzi-kartzeletan zein bestelako kartzeletan sartu zituzten”. Hortaz, bi garai horietako errepresioa gogora ekarriko ditu “1937 eta 1943 bitartean, soilik Bilbon eta Derioko hilerrian ia 600 pertsona exekutatu zituzten frankistek”. Zalantza barik, jardunaldi hauek atzoko garaiei begira ipiniko dira, eta ikasteko aukera emongo diote bati baino gehiagori, horietara hurreratzeko badira behintzat. ○

Raul Lopez Romo > historialari eta jardunaldietako hizlaria

“Mugimendu antinuklearrak kontzientzia ekologikoa, ingurumenarekiko errespetua zabaldu zuen jendartean”

—Noiz sortu zen mugimendu antinuklearra gurean?

—Euskal Herriko mugimendu antinuklearra 1976ko udan jaio zen. Une hartan, manifestazio garrantzitsuena egin zen Iberduerok Lemoiz, Ea-Ispazter eta Deban zabaldu nahi zituen nuklearren aurka. Garai hartan, milaka pertsonen parte hartu zuen Plentzia eta Gorliz artean egin zen manifestazioan, Bilbotik baita Uribe Kostako hainbat lekutatik

etorritakoek ere parte hartu zuten bertan. Horrez gainera, garrantzitsua izan zen, Euskal Kosta Ez Nuklearraren aldeko Komisia 1976ko maiatzean sortu izana. Antolakunde horrek herritarren indarrak batzen zituen; arrantzaleak, auzokideak, sendi-elkarteak...

—Zelan definituko zenuke garai hartako mugimendu hori?

—XX. mendeko bigarren erdialdean Euskal Herrian sortu zen mugimendu

garrantzitsuenetakoaren aurrean gaude; parte hartzaile kopuruagatik, baita izan zuen eraginagatik ere. Gainera, azpimarratu behar da mugimendu anitza zela; hasieran, batez ere. Eta mugimendu horrek gizartean kontzientzia ekologikoa eta ingurumenarekiko errespetua zeharo hedatu zuen.

—Zeintzuk izan ziren testuinguru horren ezaugarri garrantzitsuenak?

—Testuingurua erabat tentsioa zen; izan

ere, eredu autoritarioak mantentzen ziren, berbarako, 1979an Guardia Zibilak Gladys del Estal hil zuen jardunaldi antinuklearran parte hartzen zegoenean. Horrez gain, biolentzia politikoak gora baino ez zuten egin; ETAk kanpaina gogorra abiatu zuen, eta zenbait pertsona hil zituen. Gainera, garai hartan krisi ekonomikoa zein energetikoa ere bazeuden. Horren aurrean, asanblarismoan oinarritutako mugimendua artikulatzen hasi ziren ideologia ezberdinetako pertsonak.

—Historikoki zein eragin izan zuen mugimendu horrek gure eskualdean?

—Historialari askok zera uste du: trantsizio garaian, demokrazia gurera ekartzeko lanean sekulako garrantzia izan zutela

mugimendu sozialek; eta ez bakarrik elite politikoei ezta gizartearen egiturazko ezaugarriek ere. Mugimendu horien artean, esanguratsuenetariko bat langile-mugimendua da, horrek erregimen frankista kinka larrian jarri zuen, batez ere, Euskadi bezalako zonaldeetan, oso aktiboa baitzen mugimendu hori. Halere, langile mugimendua ez zegoen bakarrik, beste mugimendu batzuekin harremana zeukan-eta; beste batzuen artean, garrantzitsuenetariko bat Uribe Kostako mugimendu antinuklearra zen. Horrela, harekin harremana izan zuen. Horrek jendea kalera atera zuen, eta behartu zuen jendea politika publikoetan parte hartzera, ez bakarrik, lau urtean behin bozka ematera. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Sua filmaren estreinaldia

Egurra ihartu eta lapikoko ona izan dadin su txikian ipini ostean, herri-garrak isiotuta...



Sua filmaren estreinaldirako egindako horma-irudia. Info+: www.sua-filma.com

Eneko Arizaren Lagunak Elkarteak Orreagako gudaren gaineko film laburra egin ostean, sortu zuen ikusminaz jabetuta, "zerbait handiagoa" egin gura eta *Sua* film luzeari ekin zion. Ordutik, zortzi urtez ezpalez ezpal egurra txondortzen ibili da Ibarra eta Algortako su oneko eragile-egurgile andana. Eta meta amaitu dute; ekainaren 2an "Akelarrea eta guzti" Ozaetan (Araba) egindako aurrestreinaldiaren ostean, Tolosan aurkeztu eta gero, orain, Algortako txanda da: uribekostar askok parte hartu duen filmaren estreinaldia uztailaren 13an egingo da Bihotz Alai plazan 22:00etan (sarrera: 6 euro: Egizu, Bizarra Lepoan, Katilu, Saniko eta Ajurian salgai).

Beheko suaren aurrean kontatzen diren istorio-historiak modukoa da *Sua* irudiz helarazi gura duena. "Historian oinarritutako istorioa egin dugu, gauza asko gure irudimenetik sortu (...) Dena ez baitago idatzita", azaldu zuen elkarte kide Lander Labajak UK-k egindako al-

karrizketan. XVII. mende hasieran, Lapurdin, inkisizioak egindakoak ditu abiapuntu, "Pierre de Lancre oinarri hartuz, Frantziako gobernuaren izenean Ipar Euskal Herriko euskaldun asko erretzea agindu zuena; Espainiako inkisizioak bezalatsu". 700 lagunetik gora parte hartu duten grabazioak zazpi lurraldeetan egin di-

**«Uztailaren 13an
Bihotz Alai plazan
gaueko 22:00etan»**

tuzte, gurean, berbarako, Meñakozen eta Azkorin. Elkartetik diotenez, "herri mailan eta era amateurrean egin da, bate-re baliabide eta diru laguntzarik gabe, guztia jendearen eskuzabaltasunaz landuta. Gutako inor ez da mundu honetan aditua baina ederki pasa dugu...". Horrez gain, argazki-erakusketa ere ikusgai dago hilaren 14ra arte Algortako Azokan.

Herriaren, historiaren, memoriaren, istorioen sua ez dadila hil... o

Txapel Reggae nagusi!

Karmen jaien barruan, **Armintzako portuan uztailaren 14an** izango da jaialdia



Vibronics featuring Jah Marnyah Erresuma Batuko taldea

Adin nagusitasuna ospatuko du aurton Armintzako reggae jaialdiak. Karmenen barruan ospatzen den Txapel Reggae jaialdiak bere XVIII. ekitaldian. 1990ean hasi eta gaur arteko ibilaldian, hastapenetan eta gaur arteko ibilaldian, hastapenetan garatuz, handituz, nagusituz eta osatuz joan da. Ostera, hasierako sortze-asmotzuek bere horretan dira, eta aurton ere zuzeneko eskainiko duten taldeetako nahikotxo Euskal Herrikoak dira.

Armintzako portuan, uztailaren 14an, zapatuan, gaueko 21:30etik aurrera abiatuko den ekitaldian hurrengo taldeen doi-

nuakaz gozatzeko aukera egongo da: Orabai Perkusioa (Euskal Herria), Thunder Clap Sound System (EH), Itziarren Seameak (EH), Chalwa Band & King Konsul (EH), Akatz (EH), Skarra Mucci (Jamaika), Backed by Heartical Sound (Frantzia) eta Vibronics featuring Jah Marnyah (Erresuma Batua).

Armintzako Jai Batzordeak aurten ere egitarau ederra prestatu du, eta Txapel Reggae kontzertuez gainera, beste ekitaldi zein ikuskizun andana izango ditu gozagai hurreratzen denak. o

Info+: www.facebook.com/txapelreggae

diskoak

...irabazi arte!
Iheskide
Mauka Musikagintza



Elorriko taldeak (lehenago Iheskide) aurtengo martxo-apirillean Usurbilgo Hi-Gain estudioetan Haritz Harreguyren laguntzaz osatutako diskoak aurkeztu du. Punk-rockeko 11 abesti batu dituzte bertan. Diotenez, "Durangaldetik, Sermond's eta bestelako bideari eutsiz, hemen dugu borrokanrollaren beste adibide bat!"

Gasteiz Dirt Capital
Askoren artean
Bi-Batean



"Gasteiz hiriburua berdea" ei da garaioan, ostera, batzuentzat "barrenak kolore beltz eta usain txarrekotik hurbilago ditu". Hori eta 70. hamarkadan New Yorken zenbat taldek kaleratutako *Songs of the Naked City* bilduma gogoan Los Canibales, Los Fontane, Turboneskak, Los Nitxos, Azken Ordua eta Sumision City Blues taldeek osatutako lana da hau.

Quinoa
Jeronimo Martin
Hotsak



Piano jotzaile bilbotarraren 2. lanean "Hiriko musika garaikidea" entzun daiteke. Gonzalo Fernandez de Larrinoa, Ruben Salvador, Julien Izarra, Hilario Rodeiro eta J. Mayor izan ditu kolaboratzaile. Adituen ustez: folkloretik edaten du, estetika klasikoan oinarritzen da, osterara agian jazz bera ere ez da, ezta bere mamia berariazko swinga ere, estilo sinfonikoaz istorioak helarazten ditu...

opera > Altzoko Haundia

David Azurzak eta Koldo Izagirrek *Altzoko Haundia* opera idatzi eta orain gitxi aurkeztu dute diskoa. Migel Joakin Eleizegi, "Altzoko Handia" (1818-1861) du protagonista eta Tolosako Hodei Truk abesbatzak abestu du. Diotenez, "Eleizegi bere garaiko pertsonarik altuenetako izan zen, altuena ez bazen: 2,42m luze izatera iritsi zen, inoiz ez baitzion hazteari utzi". Erraldoitasunak lotsarazi egiten ei zuen eta familiak bitxikerien museoen munduan sartu omen zuen. Koldo Izagirrek adierazi duenez, "Harri-garria da nola bere figura ez den baliatu folklorean, kantuan eta literaturan, erraldioen figurak aukera handiak ematen dituelako". Eleizegiren pertsonaiari ahotsa Jagoba Fadriquek ipini dio, badira ostera beste ahots ezagun batzuk: Anjel Alkain, Maite Arruabarrena, Kike Amonariz, Leire Alargunso e.a. 67 disko formatuan lor daiteke; datorren urtean txotxongilo-ikusbizuna egingo dutela ere iragarri dute.

Info+: altzokohaundiaopera.blogspot.com

jaialdia > Bilbao BBK Live

Hilaren 12tik 14ra bitartean Kobetamendin egingo den jaialdian 50 taldetik gora joko du. The Cure, Radiohead, Garbage eta Keane kartel buru dituen egitarauan euskal talde gitxi batzuk ere badira, berbarako: Belako, Zea Mays eta Lauroba. Hiru egunerako bonoak 105 € balio du (6 € gehiago gestio kontuak), eguen eta barikurako sarrerek bakoitzak 55 € (+6€) eta zapaturokoek 50€ (+6€).

Info+: www.bilbaobbklive.com

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eusko Herria kalaguz bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Argitaletxe barri bat

Bestelako **Edo!** argitaletxe "elebakar, autofinantzatu eta independentea" sortu dute

Maiatz hasieran aurkeztu zuten "euskar elebakar, autofinantzatu eta alderdi eta erakundeetatik independente" izan asmoz sortu duten Edo! argitaletxea, eta egunotan jendarteratu du lehenengo fruitua.

Ekimenaren talde eragilea 10 lagunek osatzen du: Harkaitz Zubiri, Mikel Peruarena, Idoia Beratarbide, Allende Arnaiz, Oier Guillan, Isa Castillo, Ion Olano, Ibon Egaña, Imanol Epelde eta Iratxe Retolazak; inguruan beste idazle, eragile, ekintzaile nahikotxo ere badituzte. Asma argi adierazi dute: "edo! aukera berri bat da (...); diru inabazi (eta galera) asmorik gabeko egitasmo autofinantzatu da; borondatezko lanean oinarrituko da; liburuak ez dira merkantzia hutsa; kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izango da; diru

«Ongi etorri harpidedun zein bazkide barriei»

laguntzak onartuko ditu, bere printzipioak baldintzatzen ez dituen neurrian; publikazio berme denak emango dizkio egileari; ez du abiadura handiko lanik nahi (...)" Plazaratzeko "oztopoak" dituzten lanak argitaratuko ditu, liburu formatuan zein digitalean, bazkide eta harpide sarearentzat. Paperezkoie dagokienez, 3 saile-



Info+: www.argitaletxeedo.org


tan-edo banatuko dituzte argitaratuko dituzten lanak, laster datozenak: Begikoak sailean (irudiari dagokiona) Maite Gurrutxagaren (lan-grafikoa) eta Gari Garaialderen (argazki-erreportaiak) lanak; Literola sailean (askotariko literatura-lanena) Gen Eroa desenaikitzen artikulua sorta; eta Xortak sailean (orrialde gutxiko testuei begirakoa: hitzaldi, saiakera labur e.a.) Harkaitz Canoren hitzaldi batetik abiatuko den saiakera, Ana Moralesek itzulitako *Hormako paper horia* eta *Eta Karmele?* antzezlanak. Azken hori dagoeneko aurkeztu-antzeztu dute. "Ongi etorri" esateko prest daude harpidedun/bazkideei. ○

liburuak



Bakea gudan...
Joxe Azurmendi
Txalaparta

Bakea gudan: Unamuno, historia eta karlismoa liburuak plazaratu du Zegamako idazle, filosofo eta irakasleak; Joseba Sarrionandiaren hitzurreagaz osatzen dena. Miguel de Unamunoren (Bilbo, 1864-Salamanca, 1936) *Paz en la guerra* nobelaren irakurketa filosofikoa da lana.



19 kamera
Jon Arretxe
Erein

Basauriko idazlearen azken nobela baltza da. Bilboko San Frantziskon bizi den Toure etorkin afrikar protagonistaren bidez Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikantzaileen istiluak, adin txikiko prostituta desageretzea, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak e.a. ditu kontagai.

[kirola]

Arraun liga hasi da, eup!

Getxo eta Raspas arraun taldeek ere parte hartzen dute **ARC ligan**



Info+: www.liga-arc.com

Hasi da arraun sasoia eta gure taldeak jo eta ke dabilta lanean: ARC Kantauriko Arraun Elkartearen liga jokatzeko ari dira Raspas eta Getxo arraun taldeak. Arraun taldeen artean maila-igoerak eta jaitsierak gertatzen dira, bai ARC ligako taldeen artean, bai ARC eta ACTren San Miguel ligen artean. Beraz, estropadak gustuko badituzu zorionekoak zara. Izan ere, bi hilabetetan hamaika proba jokatuko dira.

Talde bitan banatzen dira arraun taldeak ARC liga jokatzeko: lahenengoan daude 12 talde eta bigarrenetan 13. Azken horretan daude Getxoko talde biak. Ez doaz txarto, eta lehenengo postuetatik gertu dago Raspas: puntu gutxira dauzka Trintxerpe, Orio eta San Pedro, lehen sailkatuak. Baina oraindino estropada asko daukate aurretik eta auskalo zer gertatuko den azkenean. Izan ere, uda osoan jokatuko dira probak.

Ekainaren 23an abiatu zen liga eta bigarren taldekoek 15 proba egingo dituzte abuztuaren 26 bitartean, Play Off saio-

ak baino lehen. Lehenengo taldeko probak, barriz, San Juan egunean hasi ziren, ekainaren 24an, eta abuztuaren 25 arte jokatuko dira.

Bigarren taldeko hiru proba Uribe Kostan egingo dituzte: uztailaren 28an izango da Algortako Portuzarra IX Ikurriña, abuztuaren 4an Plentziako XXIV.

«Hiru proba jokatuko dira Uribe Kostan: Agortan, Plentzian eta Aretan»

Ikurriña, eta abuztuaren 11n Aretako XV. Bandera; hiru probak hasiko dira eguerdian, 12:00etan, eta lau luze egin beharko dituzte arraunlariak, lau kaletan.

Irailan izango dira Play Off saioak, bata Lutxanan, bestea Pasaian. Lutxanakoa irailaren 1ean izango da, itsasadarrean. Banakako erlojupekoa (1 kale, 4 luze) izango da eta arrastian egingo da, 18:00etatik aurrera. Azken proba Pasaia izango da, irailaren 8an eta Lutxanako egitura bera izango du; hori ere 18:00etan hasiko da. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Toscana Viar > nutrizioan aditua

“Garrantzitsua da elikadura orekatua jarraitu eta elikagaiak ondo konbinatzea”

Fadurako jatetxean emon zuen sukaldaritza osasungarriari buruzko tailerra Toscana Viarrek, bertako sukaldariak batera, ekainaren 21ean. The Health Company zentroan dabil getxoztar hau: Bidezabalen eta Areetan dauzkate osasun, fisioterapia eta edertasun zentroak. Elikaturaz eta hari buruzko mitoez galdetu diogu.



Toscana Viar getxoztarra

—Sukaldaritza osasungarriaz aritu zarete tailerrean, zer landu duzue?

—Tailerra hitzaldi batez osatu genuen eta irakatsi genuen zelan jan ondo, zalantzak argitzen saiatu ginen eta mitoak askatu genituen.

—Zeintzuk dira ondo elikatzeke oinarritzko jarraibideak?

—Ez dago oinarritzko printzipiorik, aldeak daude pertsonen artean. Garrantzitsua da elikadura orekatua jarraitzea eta elikagaiak konbinatzen ikastea. Askotan zorrotzegi izan gura dugu eta, azkenean, erori eta beste muturrera goaz. Noizbehinka gehiegikeria egin daiteke, baina une zehatzetan. Garrantzitsua da aldatzea, bestela monotonoa bihurtzen da dieta eta aspertzera gara. Hori orokorrean, baina badaude behar zehatzak dauzkaten pertsonak: gaixotasunak edo behar fisiologiko zehatzak dituztenak, haurdun daudenak, kirolariak... Egoera bakoitzera egokitu behar da, une bakoitzeko beharrak asetu ahal izateko.

—Guztiok ezin dugu berdin elikatu?

—Hori da. Egia esan, oinarritzko kontzeptuak daude pertsona guztientzat, badaude osasunerako onak edo kaltegarriak diren elikagaiak. Baina hortik aurrera, behar desberdinak daude: ez da

gauza bera ume edo agure izan, ariketa egin edo egun osoa eserita emon. Elikaduraren bitartez lor dezakegu egoera fisikoa hobetzea eta ondo egotea.

—Modan dago hainbat dieta: barazki-jalea, beganoa, makro-biotikoa, e.a.; osasungarriagoak dira?

—Gero eta gehiago zabaltzen ari dira

eta ez da abusatu behar esneki eta fruitu lehorrez. Nola egiten den, osasungarria izango da edo ez, gainontzeko dietak bezala.

—Aurrez prestatutako janariaren garai honetan, zelan elikatzen gara?

—Gero eta gehiago jabetzen gara egoeraz, baina bizimodu azkarrak askotan ez

“Bizimodu azkarrak askotan ez digu uzten behar bezala jaten, eta askotan, merkeagoa da txarto jatea ondo baino”

horrelakoak, aukera asko dago eta dieta baino gehiago dira: bizitza moldeak dira. Berbarako, dieta makro-biotikoa egiten dutenek, askotan, bizimodu bereizgarria daramate. Horrelako dietakaz ere oreka behar da. Elikagai osasuntsu asko daukate, baina osatzen jakin behar da: dieta barazkijaleak proteinak bilatu behar ditu

ditu uzten behar bezala jaten eta, askotan ere, merkeago da txarto jatea ondo baino. Baina horrelakoetan aukera desberdinak daude. Horren kaltegarri ez diren konponbideak topatzen saiatu behar dugu: hobe da oilasko errea jatea hanburgesa baino, edota bokata opil industrialak beharrez. ○

Fredi Paia

Uderako kanta bi

90eko hamarkadan Josu Landeta eta Joseba Santxok batu eudezan geur dakardazen kanta bik. Berangoko Santa Ana auzon batunde daoz eta ALBE bertso-eskolako kanta nagosik direz akabuko aspaldin. Urrekobeluntxepekok Bilboko Atxurire San Antoniori mutile eskatuten jondako hiru neskatilen barri emoten dousku. Neskatok marineru bet topa euden, aies, baie arin eskapa iaun, Erandioko Aspeko estazinon lotute egolako itsosora urteteko. Santiau pasau de ta, ostera, geur Paella eguneko gaba lez ezetuten dun, eta Golizen bere ospatzen dan Santiago egun osteko ilunden barri emoten dosku.

Santiau pasau de ta
Santana geubian
Mutil bi egon sasen morena
Bentana batian oi ai(bis)

Mutilok egon sasen
Guzurrek kontetan
Aittitte koittedue morena
Taloak erretan oi ai (bis)

Amama koittedia
Gortati negarrez
Katu demoliñua morena
Taloa dandarrez

Masuste koloreko
Begitxu baltzokaz
Ondo emgaina in ñoña morena
Berba labanokaz oi ai (bis)

Harako zeuk gure ta
Neuk gure nendunian
Berba labanik asko morena
Zendula miñian oi ai (bis)

Zeuk bere Joseba ta
Neu bere Joxepa
Ontxe konta biharkuz morena
Hamalau peseta oi ai (bis)

Urrekobelontxupeko
Hiru neskatila
Atxurire joan sisan
Nobioaren bila
Atxurire joan eta
Lelango berbia
Esan egideistazu
Zein dodan neuria.

(i)esaten badostazu
zein dodan neuria
orduntxe emongo dotsut
neure pesetia

(i)ur hausi pandero
(i)asunberdikoa
garrie lodi-lodi
kolore bikoa

Non da gure untziko
mutil gazterie?
Aspen loturik dago
Trenen jon da iges

Elaie bat etor jaten
Armin eta istu
Neurtu egin behar iauela
Luze labra biztu

Ohiaren neurrian
Ohiaren neurrian
Joten duleko oinelagaz
Kokota hazurrian

Etxera joan eta
Gatza ta zangura(sic)
Egin bihar netsizula
Nik kura

Jose Bentura
Jose Bentura
Ez etorri gehiautan
Nire komentura

Jose Bentura
Jose Bentura
Ez etorri gehiautan
Nire komentura

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina triangeluetan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Berango

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Hanburgesa ttipi-ttipia

mokadu fina hanburgesa itxuran



Txahal-haragiak beste osagarriakaz nahastuta, zapore ederra dauka

Hanburgesa aipatu, eta askok eta askok zabor-janariagaz erlazionatu ohi du ogitarteko mota hori; kasu honetan, baina, hanburgesa jaki orekatua eta osasuntsua ere izan daitekeela demostratuko dizugu. Horretarako, Portu Zaharreko tabernan sarritan jartzen dituzten hanburgesak mintzagai izango ditugu oraingo pintxotan. Hanburgesak hasteko, txahal-haragi txikitua ondorengo osagaiakaz nahastuko dugu: ogi-birrindua, esnea, arrautza eta tipulinagaz. Osagai guztiak batu, eta bi koilarakada tomate-saltsa botako diogu oreari. Osagai guztiak ondo loditu ostean, haragi-nahasteari hanburgesa itxura emango diogu, eta ogi-birrindua botako diogu sutan jarri aurretik. Ondoren, oliotan egingo dugu

hanburgesa bera, eta sutetik kendu baino 30 segundu lehenago gazta-xafla bat jarriko dugu haragi gainean, beroagaz gazta desegin dadin. Haragia behin eginda dagoela, egiteko geratzen zaigun lana errazena izango da; hazi-ogia bitan moztu, eta maionesa pixkatxo bat jarriko diegu ogi zatiei. Ondoren, uhaza baita tomate zati bat ere jarriko dugu ogian, eta amaitzeko tipula; tipula sueztituta, edo gordinik egon daiteke. Eta noski, geratzen zaigun bakarra, hanburgesa jartzea izango da. Hortxe, hanburgesa osasuntsua gozatzeko aukera!

Osagaiak: esnea, tipulina, ogi-birrindua, arrautza, txahal-haragia, tomate-saltsa, gazta, hazi-ogia, uhaza, tomate, tipula, maionesa.



LAIAK Taberna



BASARTENA URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Uda betean sartu gara eta bel-beltz zaude daborduko, udabarriko eguzki-izpi danak zuretzat hartu dituzte-eta. Emoten du Karibean ibili zarela oporretan. Egia ete?

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Amaitu da sufrimendua! Azterketak gaindituta gozatzeko unea duzu orain, horrenbestez, aprobetxatu eta ez lotu etxean. Behingoz atara da eguzkia, segi hondartzara lagunakaz!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Indartsu eta gogotsu ekin diezu udako jaiei eta ederto pasatu zenuen sanjuanetan. Sanpedroak ere ez dira txarto egon, baina hartu arnas, Karmen jaiak laster datoz-eta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Urte honetan lehenengoz joango zara hondartzara eta guztiak begiratuko dizute, zure azalaren zurtasunak itsututa. Berehala ipiniko zara gorri, lotsaren eta eguzkiaren eraginez.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
"Bikini operazioa" gogotsu hasi zenuen, urtero legez. Baina daborduko erabat ahaztuta daukazu, hori ere betiko legez. Bokata gozo dago bainu ostean, ezta?

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hilabeteak darozaz oporren zain eta loa kendu dizute, irrikan zaude-eta itsasoko uretan galtzeko. Hainbeste itxaron, eguna iritsi eta loak hartuko zaitu. Hegazkina hartuko duzu?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Xentimorik ez duzu oporretan joateko. Sikiera senideen herririk bazenu... Lasai egon, opor ederrak egin daitezke Uribe Kostan: hondartzara, mendia, jaiak... Zer gehiago behar duzu?

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Denek hitz egiten dute oporrei buruz eta zu ikasi eta ikasi, gainditu bakoak berreskuratzeko. Nohizbehinka altxatu begirada apunteetatik, burutik kea aterako zaizu bestela.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Gustura asko kitatu dituzu penak sanjuanetan, baina antza, nahikoa ez eta jairik jai segitzeko asmoa daukazu. Hainbeste jaik erreko zaitu zu, eguzki-izpiek beharrean...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Belar txarrakaz batera sutara bota zenituen urteko gaitz guztiak eta orain poz-pozik zabilzate, zorianak! Hurrengo asteetan ere zoriantsu ibiliko zara eta ingurukoak kutsatuko dituzu.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Lagunakaz haserretuko zara beti hondartzara joan gura dutelako. Izan ere, zuk gurago duzu mendira joan. Ipin egizu iragarkia harremanetarako webgune horietako batean.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Lantokiko langileen erdiek opor hartu dute uztailean eta besteek lanez gainezka zabilzate. Baina ez duzue lan osoa zuek amaitu behar. Egin dezatela eurek ere lan apur bat abuztuan...



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Gogoan har egizu: 1etik 9ra arteko zenbaki guztiek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki guztietan.

4	1	7		2			5	6
				5	4			
5				1			9	8
2		9				1	4	3
			6	3			2	7
	3							
6				7				1
		1		3	2			
8	5	3		6	1	9		

							7	
1	4		2			3		9
5		6			7	4	1	8
2	7		3			6		4
			8					
	5			4	9			
	9		8	7				
7	5	2	6				9	
8	1	4	2				3	

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein da paellaren osagai nagusia?

- Indabak
- Arroza
- Dilistak

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Ekainaren 21ean

> Irabazlea: **Ander Sarasketa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurreko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA
Oinutsik
 kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net 

> Aurrekoaren erantzuna: Arrate Illaro

> Irabazlea: **Angela Urkiza***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ITXAS-ARGIAK UITZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

PAELLA TXAPELKETA AIXERROTAN, 1972-07-23

Paella Eguna eta Itxas-Argia elkartearen izena ezin daitezke bereizi, urtero hain ederki eta arrakasta handiz antolatzen duelako txapelketa hau. Lehenengoz Azkorriko landetan, 1956an, egitea erabaki zuten Felix Yurrebasok, Antonio Bilbaok eta Damian Ayok, Santiago egunez, uztailaren 25ean, aurreko urteetan futbol txapelketa baten finala bertan jokatzen zelako, egun horretan. Urte batzuk beranduago Itxas-Argiak hartu zuen paella txapelketaren ardura, gaur arte. Argazkia 17. txapelketakoa dugu, ia errepikaezina, gaur oso zaila litzatekeelako alkatea eta parrokoa hor ikustea, antolatzaile, laguntzaile eta dantzariakaz. ○

Atzean: Jose M^a Ribera, Emilio Diliz, Pedro Zubiria (alkatea), Saitua, Francisco Antxustegi (parrokoa), "Deportes Lorea" dendakoa, Luis M^a Arancibia, Jose Miguel Gomez, Angel Diliz.

Erdian: M^a Angeles Gil, Izaskun Etxeandia, M^a Mar Blanco, M^a Mertxe Santamaria, ?, Bego Santamaria.

Aurrean: Benito Garcia, Javi Calderon, M^a Jose Santamaria, ?, Saitua, Miren Sorne Perez, Jenaro Serrano, Tere Rico.

NAGORE ARANBURU > aktorea

“Lasaitasuna behar dut, barrea, segurtasuna... gauza asko!”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Ez da erraza...

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Kill bill-en.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Ez dakit. Eskulanak asko atsegin ditut: jostea... Horrekin lotutako zerbaitetan agian.

Zure haurzaroko oroitzapen bat?

Amona, sukaldean, bazkaria prestatzen, eskolatik bueltan.

Badakazu ohitura txarren bat?

Asko. Komuneko botreak irekita uztea, horietako bat.

Kolore horia, bai ala ez?

Ez, baina gustuko ez dudalako. Ez naiz oso supertiziosoa.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Arnasarik hartu gabe, zentzu zabalean. Lasaitasuna behar dut, barrea, segurtasuna... gauza asko!

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Tailandiara egin nuen bidaia, orain bost bat urte.

Zein da zure ametsetako bat?

Baratza jartzeko moduko etxe bat edukitzea, adibidez.

Eguna ala gaua?

Eguna. Mugimendua gustuko dudalako.

Parrandarik politenak non?

Azkenaldian San Pedron, lagunekin.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Donostian Sagueseko txokoa oso gustuko dut. ○



The Twins © Jonathan Hobin

Argazki Jaialdia / Festival de Fotografía

GETXOPHOTO

UMEEI GORAZARRE / ELOGIO DE LA INFANCIA

Iraila / Septiembre 2012

Roger Ballen / Jill Greenberg / Paola de Grenet / Jonathan Hobin / Jan von Holleben / Frieke Janssens / Sofie Knijff / Margaret M. de Lange / Jacqueline Roberts / Alessandra Sanguinetti / Robin Schwartz / Vee Speers / Ilona Szwarc / Javier Tles / Jon Uriarte / Tereza Vlčková / JeongMee Yoon / O Zhang

Komisarioa / Comisario: Frank Kalero

LABURREAN— *Klarita* bezala ezagutu genuen lehenengoz Nagore Aranburu (Azpeitia, 1976) telebistan, ETB1eko *Jaun ta jabe* telesailan. Hamaika programatan ikusi dugu orduetik: *Sorginen laratza*, *Martin...* Baita zineman ere, berbarako, *Eutsi!* edo *Zeru horiek* filmetan. Baina Aranburu ez dabil soilik aktore, kamera atzean ere ederto moldatzen da, gidoilari. Berak gidatzen ditu Wazemank eta antzeko saioetako gidoilari taldeak, eta emaitza arrakastatsua lortzen dute, gainera. Orain *Bodologuak* lanagaz dabil taulaz taula, Mikel Pagadizabal eta Egoitz Lasagaz.

antolatzailea / organiza

BEGIHANDI

babesleak / patrocina

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

BFA DFB
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak

Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak
Euzko Foru Akademiak

Estudios Durero

bbk

laguntzailea / colobra

UK uribe kostako aldizkaria

XXXVI GETXO JAZZ

UZTAILA 4-8 JULIO
2012

LARRY CARLTON
QUARTET

CHINA MOSES

WAYNE SHORTER
QUARTET

MIKE STERN /
RICHARD
BONA BAND

ELIANE ELIAS
TRÍO



sarreraren salmenta
venta de entradas

ordenatu sarrerak
ordenar sarrerak
944 310 310
www.bbk.es
bbk =



944 914 080 • www.getxo.net • kulturetxea@getxo.net

Antolatzaileak | Organizadores



Babesleak | Patrocinadores



Laguntzaileak | Colaboradores

